# IBILTUR MICE 2019

## Euskadira kongresu eta biltzarretan parte hartzera etortzen diren turisten profila eta portaera

2020ko ekaina

# IBILTUR MICE 2019

## Conocimiento del perfil y comportamiento de las y los turistas asistentes a congresos y convenciones en Euskadi

Junio 2020

## EZAUGARRIAK

**Lanaren zuzendaritza:**
IKERTALDE aholkularitza-taldeak egindako lana

**Talde idazlaria:**
Yolanda García Díez (proiektuaren zuzendaria)
Julio A. Jiménez Arévalo eta Kepa Salaverria Folgado (analisi estatistikoko aholkulariak )

**Sortze-data:**
2020ko ekaina

**Bertsioa**
**1**

**Iruzkinak**

## CARACTERÍSTICAS

**Dirección del trabajo:**
Trabajo realizado por IKERTALDE grupo consultor

**Equipo redactor:**
Yolanda García Díez (Directora del proyecto)
Julio A. Jiménez Arévalo y Kepa Salaverria Folgado (Consultores en análisis estadístico)

**Fecha de creación:**
Junio 2020

**Versión**
**1**

**Comentarios**

BASQUETOUR, SAren jabetzako dokumentua.
Debekatuta partzialki edo osorik erreproduzitzea, berariazko baimenik gabe
Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total sin autorización expresa.

## Aurkibidea

**EUSKADIKO KONGRESU ETA BILTZARREN TURISMOAREN ESPARRU OROKORRA ....... 4**

**ONDORIOAK.................................................... 6**

**1.- KONGRESU ETA BILTZARRETARA ETORTZEN DIREN TURISTEN PORTAERAREN GAKOAK ....................... 9**
- 1.1.- Zer arrazoi subjektibo dituzten turistek Euskadiko kongresu edo biltzar batera etortzeko, zein den Euskadiko kongresu eta/edo biltzarraren egoitza eta non bizi diren ........................................................ 10
- 1.2.- Kongresu eta biltzarretako bisitarien profila ........................................................ 13
- 1.3.- Zer garraiobide erabiltzen dituzten, non hartzen duten ostatu eta zenbat eguneko egonaldia egiten duten................................ 20

**2.- EUSKADIKO KONGRESU ETA BILTZARRETARA ETORRITAKO PERTSONEK EGINDAKO AISIA-JARDUERAK ETA BISITATUTAKO LEKUAK ..................................................... 26**
- 2.1.- Jarduerei buruzko aldez aurretiko informazioa................................................. 27
- 2.2.- Euskadira kongresu eta biltzarretara etortzen direnek egindako aisia-jarduerak, lekuak eta txangoak .................................. 29

**3.- EUSKADIREN BALORAZIOARI BURUZKO ADIERAZLE TURISTIKOAK ...................... 37**
- 3.1.- Nola baloratzen dute kongresua eta/edo biltzarra egin den hiria?.............................. 37
- 3.2.- Itzuliko al lirateke Euskadira aisia-arrazoiengatik?........................................... 39
- 3.3.- Zein dira hurrengo aisia-bisitaren jarduera eragileak? .................................... 42

**4.- EGITEN DUTEN GASTUA........................... 47**
- 4.1.- Gastu osoa eta eragin ekonomikoa .... 47
- 4.2.- Euskadin egindako gastua.................. 49

**5.- KONGRESU ETA BILTZARREN TURISMOA BISITARIEK GAUA EMATEN DUTEN OSTATU-MOTEN ARABERA .................... 53**

**6.- EUSKADIKO KONGRESU/BILTZARRETARA ETORTZEN DIREN EMAKUME ETA GIZONEN PORTAERA BEREIZGARRIEN FUNTSEZKO ARDATZEN AZTERKETA... 58**

**7.- KONGRESU ETA BILTZARRETAN PARTE HARTZEN DUTENEN TIPOLOGIAK ......... 62**

**FITXA TEKNIKOA............................................ 65**

## Índice

**MARCO GENERAL DEL TURISMO DE CONGRESOS Y CONVENCIONES EN EUSKADI ..........................................................4**

**CONCLUSIONES..............................................6**

**1.- CLAVES DEL COMPORTAMIENTO DE LAS Y LOS TURISTAS ASISTENTES A CONGRESOS Y CONVENCIONES............9**
- 1.1.- Qué motivaciones subjetivas interesan a las y los turistas a la hora de asistir a un congreso o convención a Euskadi, cuál es la sede del congreso y/o convención en Euskadi y dónde residen ..........................................10
- 1.2.- Perfil de las y los asistentes a congresos y convenciones...........................................13
- 1.3.- Qué medios de transporte utilizan, dónde se alojan y cuántos días dura su estancia ......................................................20

**2.- ACTIVIDADES DE OCIO PRACTICADAS Y LUGARES VISITADOS POR LAS Y LOS ASISTENTES A CONGRESOS Y CONVENCIONES EN EUSKADI ................26**
- 2.1.- Información previa relativa a las actividades..................................................27
- 2.2.- Actividades de ocio, lugares y excursiones realizadas por las y los asistentes a congresos y convenciones durante su visita a Euskadi..........................29

**3.- INDICADORES TURÍSTICOS SOBRE LA VALORACIÓN DE EUSKADI .....................37**
- 3.1.- ¿Cómo valoran la ciudad donde se ha celebrado el congreso y/o convención? ......37
- 3.2.- ¿Volverían a Euskadi por motivaciones de ocio? ......................................................39
- 3.3.- ¿Cuáles son las actividades tractoras de la próxima visita de ocio? ............................42

**4.- EL GASTO QUE REALIZAN ......................47**
- 4.1.- Gasto total e impacto económico ........47
- 4.2.- Gasto realizado en Euskadi.................49

**5.- EL TURISMO DE CONGRESOS Y CONVENCIONES SEGÚN LOS TIPOS DE ALOJAMIENTO DONDE PERNOTAN LAS Y LOS ASISTENTES.....................................53**

**6.- ANÁLISIS DE LOS FACTORES CLAVE QUE DIFERENCIAN EL COMPORTAMIENTO DE LAS MUJERES Y HOMBRES ASISTENTES A CONGRESOS Y CONVENCIONES EN EUSKADI ................58**

**7.- TIPOLOGÍAS DE ASISTENTES A CONGRESOS Y CONVENCIONES............62**

**FICHA TÉCNICA...............................................65**

## EUSKADIKO KONGRESU ETA BILTZARREN TURISMOAREN ESPARRU OROKORRA

**Euskadiko kongresu eta biltzarren turismoa eskaeraren ikuspegitik ezagutzeko arloan** sakondu baino lehen, gelditu eta, azaletik besterik ez bada ere, inkestetako datuen ondorioak ateratzeko erabili den **erreferentzia-esparrua** eratzeko prozesua azaltzea komeni da.

Spain Convention Bureau-k ekitaldi-tipologiaren araberako sailkapenean ezarritako irizpideak erreferentziatzat hartuta, eta Gasteizko, Bilboko eta Donostiako Convention Bureau-k emandako datuen arabera, Euskadin, 2019an, 117.232 parte-hartzaile izan dira kongresu- eta biltzar-jardueretan (Ibilturren azken txostenari (2017-2016) dagokion urtean baino % 41 gehiago). Parte-hartzaile kopuru hori egin diren 427 kongresu eta biltzarretan eman da. Horien % 9 Gasteizen egin da, % 59 Bilbon eta gainerako % 31 Donostian.

Inkesten datuak jasotzen dituen azterlanaren[1] erreferentzia-esparrua osatzen duen parte-hartzaile kopuruak honako banaketa hau izan du ekitaldien hirien arabera:

- ✓ Gasteiz, 12.315 ordezkari
- ✓ Bilbo, 75.513 ordezkari
- ✓ Donostia, 29.404 ordezkari

Erabilitako laginketa-puntuen karakterizazioaren ikuspegitik, honako inguruabar hauek nabarmendu daitezke:

- ➢ Egin diren kongresu eta biltzarren % 58 estatukoak izan dira, eta sektore garrantzitsuena mediko-sanitarioa izan da (% 54).
- ➢ Kongresu eta biltzar horien edukiera ohikoena 50 eta 150 pertsona artekoa izan da (% 32).
- ➢ Ekainean (% 29), irailean eta urrian (bietan % 23) pilatu da ekitaldi-kopuru handiena.

## MARCO GENERAL DEL TURISMO DE CONGRESOS Y CONVENCIONES EN EUSKADI

Antes de pasar a profundizar en el **conocimiento del turismo de congresos y convenciones en Euskadi desde la perspectiva de la demanda**, conviene detenerse y exponer, aunque sea someramente, el proceso según el cual se ha conformado el **marco de referencia** que se ha utilizado para inferir los datos de las encuestas.

Tomando como marco conceptual de referencia los criterios establecidos por el Spain Convention Bureau en la clasificación por tipología de evento y según datos facilitados por los Convention Bureau de Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia-San Sebastián, la actividad de congresos y convenciones en Euskadi durante el año 2019 ha congregado a 117.232 asistentes (un 41% más que en el año correspondiente al último informe de IBILTUR: 2017-2016). Este número de asistentes se registra en los 427 congresos y convenciones celebrados, de los cuales el 9% lo han sido en Vitoria-Gasteiz, el 59% en Bilbao y el 31% restante en Donostia / San Sebastián.

El número de participantes que constituye el marco de referencia del estudio, al que se elevan los datos de las encuestas[2], sigue la siguiente distribución según las ciudades donde se han celebrado los eventos:

- ✓ Vitoria-Gasteiz 12.315 delegados/as
- ✓ Bilbao 75.513 delegados/as
- ✓ Donostia / San Sebastián 29.404 delegados/as

Desde una perspectiva de caracterización de los puntos de muestreo utilizados, se pueden destacar las siguientes circunstancias:

- ➢ El 58% de los congresos y convenciones a los que se ha acudido son de ámbito estatal, siendo el sector más relevante el médico-sanitario (54%).
- ➢ El aforo más habitual de estos congresos y convenciones es de entre 50 y 150 asistentes (32%).
- ➢ El mes de junio (29%), septiembre y octubre (ambos 23%) es donde se han concentrado el mayor número de eventos.

[1] Operazioaren diseinuari buruzko informazio zehatza dokumentu honen amaierako fitxa teknikoan dago xehatuta.
[2] La información específica sobre el diseño de la operación esta detallada en la ficha técnica ofrecida al final de este documento.

*0.1. grafikoa. Kongresu/ biltzarraren lurralde-esparrua, 2019*
*Gráfico 0.1. Ámbito territorial del congreso/ convención, 2019*




*0.2. grafikoa. Kongresua / biltzarra egindako hila, 2019*
*Gráfico 0.2. Mes de celebración del congreso / convención, 2019*




*0.3. grafikoa. Parte-hartzaile kopurua kongresu/ biltzarreko, 2019*
*Gráfico 0.3. Número de participantes por congreso/ convención, 2019*




*0.4. grafikoa. Jarduera-sektorea, 2019*
*Gráfico 0.4. Sector de actividad, 2019*



## ONDORIOAK

- **Bilbon** egitea, arlo **mediko-sanitariora** eta, neurri apalagoan, **teknologikora** bideratuta egotea eta batik bat merkatu **nazionala** izatea dira Euskadiko kongresu eta biltzarretan parte hartzen dutenen profilaren ezaugarri nagusiak.

- **Ekitaldiaren programak** eta bere kalitateak eta edukiek **osatzen dute erakargarri egiten duten alderdi erabakitzailea**. Programa soziala eta aisiakoa, bestalde, ez dira hain alderdi erabakigarriak.

- *Bilbo*, alde handiarekin, **nazioarteko** ekitaldi-turismoari gehien irekitako egoitza da. *Gasteiz* eta *Donostia*, bestalde, **bi merkatu oso espezifikori begira daude: Madril eta Kataluniari**, hurrenez hurren.

- Bi merkatu nagusiek, nazioartekoak eta nazionalak, **jatorri-banaketa handia** erakusten dute. Estatukoen artean Madril eta katalunia nabarmentzen dira eta, nazioartekoen artean, gehienbat Britainia Handia eta gero Italia, Frantzia eta Alemania. Horietako bakarrak ere ez du egiten kongresu eta batzarretako turisten % 16tik gorako ekarpena.

- **Euskadiko kongresu eta biltzarretara etortzen diren turisten batez besteko adina aisia-arrazoiengatik etortzen diren turistena baino askoz baxuagoa da** (41 eta 49 urte, hurrenez hurren), eta, gainera, urtetik urtera gaztetzeko joera du. Hala ere, bi alderdik iradokitzen dute turistak erakartzeko plataforma bikaina izan litekeela etorkizunean: batetik, aisia paraleloko programan aukeratutako jardueretako banaketa-motak eta, bestetik, batez ere estatuko turisten aldeko joerak.

- **Hegazkina da** MICE turistek gehien erabiltzen duten **garraioa, batez ere nazioarteko merkatuetatik etortzen direnek eta Bilbon egiten diren ekitaldietan parte hartzen dutenek.** Estatuko turisten artean eta Donostiako ekitaldietara joaten direnen artean, ibilgailu pribatua hegazkina adina erabiltzen da. Gasteizera joaten direnen artean, bestalde, asko aldatzen da portaera: hegazkina oso gutxik erabiltzen dute, trena ere gehiagok erabiltzen baitute.

- **Euskadiko hiru MICE helmuga nagusiek ostatu-egitura oso desberdina dute**. *Bilbon* goi-mailako hotelak aukeratzeko joera handia dute, eta 2 izarreko hotelak edo maila baxuagokoak aukeratzen dituzte Donostiara etortzen direnek. Gasteizek Bilbokoaren antzeko egitura proposatzen du, goi-mailako kategorietan horrenbeste oinarritzen ez bada ere.

## CONCLUSIONES

- Celebración en **Bilbao**, orientación a las ramas **médico-sanitaria** y, en menor medida, **tecnológica**, y mercado fundamentalmente **nacional**, son los rasgos principales del perfil de los y las participantes en congresos y convenciones en Euskadi.

- El **programa del evento**, su calidad y contenidos, **constituye el aspecto determinante que configura su atractivo**. Por el contrario, el programa social y de ocio se muestra como el aspecto menos decisivo.

- *Bilbao*, con diferencia, es la sede más abierta al turismo de eventos **internacional**. *Vitoria-Gasteiz* y *Donostia / San Sebastián* se muestran por su parte muy orientados a **dos mercados específicos: Madrid y Cataluña**, respectivamente.

- Los dos grandes mercados, el internacional y el nacional, muestran una **elevada dispersión de procedencias**. Destacan los mercados de Madrid y Cataluña, entre los estatales, y de Gran Bretaña, especialmente, Italia, Francia y Alemania, entre los internacionales. Ninguno de ellos hace una aportación superior al 16% de las y los turistas de congresos y convenciones.

- **La edad media de las y los turistas que asisten a congresos y convenciones en Euskadi es significativamente inferior a la de quienes visitan Euskadi por motivaciones de ocio** (41 por 49 años), con, además, cierta tendencia al rejuvenecimiento interanual. Sin embargo, dos aspectos, el tipo de dispersión en las actividades elegidas en el programa de ocio paralelo, así como cierta propensión manifestada principalmente por las y los turistas estatales, sugieren que podría constituir una excelente plataforma de captación de turistas a futuro.

- **El avión es el transporte preferido** entre las y los turistas MICE. **Lo es especialmente entre quienes proceden de mercados internacionales y entre las y los asistentes a eventos celebrados en Bilbao.** Entre las y los turistas estatales, y entre quienes acuden a eventos en Donostia / San Sebastián, el vehículo privado tiene tanta penetración como el avión. En Vitoria-Gasteiz el comportamiento de las y los asistentes varía fuertemente: escasa incidencia del avión que se ve superado incluso por el tren.

- **Los tres principales destinos MICE en Euskadi presentan una estructura de alojamiento marcadamente diferente**. Desde una clara preferencia por los hoteles de categoría superior en *Bilbao*, a una querencia importante por los hoteles de 2 estrellas o categoría inferior entre quienes tienen Donostia / San Sebastián como sede. Vitoria-Gasteiz propone una estructura similar a la de Bilbao, aunque algo menos fundamentada en las categorías superiores.

- **Bi alderdik indartzen dute nazioarteko turistarenganako interesa: batetik, maila handiagoko ostatuaren eskaera handitzen duela**, bi izarrekoen edo gutxiagokoen kontura, **eta estatukoek baino dezentez ostatu-gau gehiago egiten dituztela**.
- **Ostatu-egitura** bisitarien **adinak markatzen du**. Pentsioek eta behe-mailako hotelek 30 urtetik beherakoak hartzen dituzte gehienbat, eta kategoria igotzen den heinean, batez besteko adina ere igo egiten da.
- Masiboa izan gabe, **egonaldian aisia-jarduerengatiko interesa orokorra da** MICE turisten artean, jarduera horiek ekitaldi-programaren barruan diseinatutako antolatutakoak ez badira ere. Hala ere, ez dago modu homogeneoan banatuta; *Gasteizek* ez du Bilbok eta Donostiak jarduerak sortzeko duten ahalmenik.
- **Biltzarkideek aisiari buruz bildutako informazioaren 2/3 inguru ekitaldien antolakuntzaren bitartez bideratzen dira**. Agian, bilatzen den jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta, informalagoa eta gastronomiaren ingurukoa delako, Donostian **bide hori bigarren mailakoa da** bilaketa propioen indarrarekin alderatuta.
- **Inguruko pertsonak, gidak eta Internet dira bidaietarako informazioaren bilaketaren hiru zutabeak**. Gidak eta liburuxkak oso garrantzitsuak dira *Bilboko* bisitarientzat. Agian kultura-arloko jardueretarako egokitasunagatik. Donostia eta Gasteizen kasuan, aldiz, Internet da baliabide hedatuena.
- **Gastronomia, hiriko turismoa eta, neurri apalagoan, turismo kulturala dira kongresu eta biltzarretako turistek egiten dituzten jarduera nagusiak**. Dena den, turismo kulturalak antzeko potentziala du **Bilbon**.
- **Erosketak garapen-tarte handiko jarduera dira**. Gainera, MICE turismoaren 1/5ek bakarrik egiteaz gain, Bilbo eta Donostiara mugatzen dira, Gasteiz alde batera geratzen delarik.
- **Nazioarteko MICE turistak estatukoak baino askoz aktiboagoak dira erosketak eta jarduera kulturalak egiteko orduan**. Azken hori bere programaren ohiko zatitzat ere jo daiteke, ia-ia gastronomía edo hiri-inguruneaz gozatzea adina.
- **Eskaintza osoa, hainbat eta hainbat alderditan, oso modu positiboan balioetsi da**. Garbitasuna, segurtasuna eta harremanen kalitatea dira mugarrri garrantzitsuenak. Ahultasunen artean, termino erlatibotan, prezioak bakarrik aipatzen dira, merkataritzan nahiz ostalaritzan, bai eta egoitza-hirietako aisia-eskaintza osagarria ere.

- **Dos aspectos refuerzan el interés por una tipología de turista internacional: incrementa la demanda de alojamiento de categoría superior**, a costa de los de dos o menos estrellas, **y presenta una pernoctación sustancialmente superior a las de las y los turistas estatales**.
- **La estructura de alojamiento viene muy marcada por la edad** de los y las visitantes. Pensiones y hoteles de categorías inferiores reciben prioritariamente menores de 30 años, en tanto que a medida que se incrementa la categoría sube paralelamente la edad media.
- Sin ser masivo, **el interés por las actividades de ocio durante la estancia es generalizado** entre los y las turistas MICE, aunque no necesariamente aquellas diseñadas como parte del programa de los eventos. Sin embargo, no se distribuye de manera homogénea; *Vitoria-Gasteiz* adolece de la capacidad de generación del nivel de actividad propios de Bilbao y Donostia / San Sebastián.
- **Cerca 2/3 de toda la información sobre ocio recabada por los y las congresistas se canaliza a través de la propia organización de los eventos**. Quizás por las características de la actividad buscada, más informal y gastronómica, en Donostia / San Sebastián **este canal es secundario** frente a la fortaleza de las búsquedas propias.
- **Personas cercanas, guías e internet son los tres pilares en los que se fundamenta la búsqueda de información para los viajes**. Las guías y folletos son especialmente importantes para las y los visitantes en *Bilbao*, quizás por su idoneidad para la actividad de tipo cultural. En Donostia / San Sebastián y Vitoria-Gasteiz, por el contrario, internet resulta ser el recurso más extendido.
- **Gastronomía, turismo de ciudad y, ya en menor medida, el turismo cultural constituyen el cuerpo de las actividades desarrolladas por los y las turistas de congresos y convenciones**. No obstante, el turismo cultural muestra un potencial similar en **Bilbao**.
- **Las compras constituyen una actividad con amplio margen de desarrollo**. Además de extenderse solo entre apenas 1/5 del turismo MICE, *se* circunscriben a Bilbao y Donostia / San Sebastián, quedando Vitoria-Gasteiz al margen.
- **Las y los turistas MICE internacionales son mucho más activos que quienes proceden del mercado estatal en la realización de compras y actividades culturales**. Esta última puede considerarse incluso como parte habitual de su programa, tanto casi como la gastronomía o el disfrute del entorno urbano.
- **La oferta en su conjunto, en una gama amplia de aspectos, es valorada muy positivamente**. Destacan limpieza, seguridad y calidad de las relaciones constituyen los hitos más importantes. Como puntos de cierta debilidad, en términos únicamente relativos, solo se encuentran los precios, tanto en comercio como en hostelería, y la oferta complementaria de ocio de las ciudades sede.

- **MICE turista aisia-turista gisa erakartzeko aukera handiagoa da ekitaldi nazionaletara etortzen direnen artean**. Hurbiltasunak eta errepidez iristeko aukerak joera markatzen dute turismo kulturalerako eta City Break deiturikorako.

- **Hiriko turismoaren eta turismo kulturalaren proposamenarekin batera, gastronomiak eta ibilbideak egiteko aukerak, batez ere kostakoak, MICE turistak aisia-turista gisa erakartzeko proposamenaren erdigunean egon behar dute**.

- **Gasteizek gainerako egoitzek baino gastu-maila askoz baxuagoa sortzen du, erosketen kopuru mugatuaren ondorioz**. Donostiak eta Bilbok eguneko gastu-maila berdintsua dute, baina bigarrenak batez besteko ostatu-gau kopuru handiagoa du, hain zuzen ere, bidaiariko 40 € gehiagoko gastua.

- **Gastu-egitura asko aldatzen da hiriaren edo egoitzaren arabera**. Donostian, gastuaren oinarri nagusia gastronomia da. Gasteizen eta Bilbon, aldiz, aisia sortzeko jardueraren inguruan pilatzen da. Erosketek eta garraioak modu berdintsuan osatzen dute gastu-maila hiru hirietan.

- **Emakumeek gizonek baino gehiago hartzen dute parte aisia-jardueretan. Hala ere, gastu askoz txikiagoa eragiten dute**. Adina, zerbait baxuagoa, eta kategoria baxuetara bideratutako ostatu-egitura horrekin lotuta egon daitezke.

- **Emakumeak etorkizuneko aisia-bisitetara erakartzea zertxobait errazago izan daiteke**. Nolanahi ere, ez dago alde handirik eta gizonek negozio-arrazoiengatik bisita errepikatzeko aukera askoz handiagoak konpentsatzen du.

- **La probabilidad de captación del turista MICE como turista de ocio es muy superior entre los y las asistentes a eventos nacionales**. La proximidad y la posibilidad de acceso viario, para un turismo cultural y de City Break parece marcar la tendencia.

- **Junto con la propuesta de turismo de ciudad y cultural, la gastronomía y la posibilidad de rutas, particularmente costeras, deben estar en el centro de la propuesta de captación del turismo MICE como potencial turista de ocio**.

- **Vitoria-Gasteiz genera un nivel de gasto muy inferior al obtenido por el resto de sedes, motivado por una limitada extensión de las compras**. Donostia / San Sebastián y Bilbao presentan un nivel de gasto por día similar, pero la segunda se ve favorecida por una pernoctación media superior, para un gasto total por viajero 40€ mayor.

- **La estructura de gasto varía ostensiblemente por ciudad – sede**. *En* Donostia / San Sebastián el gasto se centraliza fuertemente alrededor de la gastronomía. En cambio, en Vitoria-Gasteiz y Bilbao se concentran alrededor de actividad genérica de ocio. Compras y transporte complementan el nivel de gasto de una manera similar en las tres.

- **Las mujeres participan más que los hombres en actividades de ocio. Sin embargo, generan un gasto sustancialmente inferior**. Su edad, algo inferior, y una estructura de alojamiento más orientada a las categorías inferiores, pueden ser aspectos relacionados.

- **Las mujeres son ligeramente más susceptibles a la captación para futuras visitas por ocio**. En todo caso, la diferencia no es acusada y se ve compensada por la netamente superior probabilidad de los hombres para repetir visita por motivos de negocios.

## 1.- KONGRESU ETA BILTZARRETARA ETORTZEN DIREN TURISTEN PORTAERAREN GAKOAK

## 1.- CLAVES DEL COMPORTAMIENTO DE LAS Y LOS TURISTAS ASISTENTES A CONGRESOS Y CONVENCIONES

Dokumentu honen orrialdeetan, Euskadiko kongresu eta biltzarretako turismoaren ezaugarriak aztertzen dira, gisa horretako ekitaldietara etortzen diren pertsonen portaeran oinarrituta.

Txosten honetako atal gehienetan, IBILTUR estatistikaren edizio desberdinetan lortutako emaitza orokorren konparatiba egiten da: 2012, 2014, 2017-2016 eta 2019koan. Analisiak, nola ez, aipatutako aldietako informazioa jasotako emaitzetan jartzen du arreta.

Nabarmendu beharreko lehen datua kongresuak eta biltzarrak egiten diren hiri bakoitzak hartzen duen bisitari-tasari buruzkoa da, eta ordezkari-kopuruaren estimazioa egiten du jatorriaren arabera.

Hala, Euskadiko kongresu/biltzarretan parte hartzen dutenen ia % 65 Bilbon egiten diren ekitaldietara joaten da, laurden bat Donostiara joaten da eta gainerako % Gasteizko egoitzetara joaten da. Ordezkarien % 79 estatuko merkatuetatik etortzen da, estimazioen arabera.

Este documento analiza a lo largo de sus páginas la caracterización del turismo de congresos y convenciones en Euskadi a partir del comportamiento de las y los asistentes que acuden a este tipo de eventos.

En la mayoría de los apartados de este informe se presenta una comparativa de los resultados generales obtenidos en las distintas ediciones de IBILTUR: 2012, 2014, 2017-2016 y la actual de 2019. Este análisis, obviamente, se centra en aquellos resultados para los que se dispone información en los periodos definidos.

El primer dato para resaltar se refiere a la tasa de asistentes que concentran cada una de las ciudades donde se celebran los congresos y convenciones, y la estimación del volumen de los y las delegadas en función de su lugar de procedencia.

Así, casi el 65% de las y los participantes en congresos/convenciones en Euskadi asisten a eventos celebrados en Bilbao, una cuarta parte se desplaza a Donostia / San Sebastián y el 11% restante lo hace a las sedes ubicadas en Vitoria-Gasteiz. Se estima que el 79% de los y las delegadas proceden de mercados estatales.

*1S. grafikoa. Bisitarien kopurua eta banaketa, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 1S. Número y distribución de las y los asistentes según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*




*1O. grafikoa. Kongresu/biltzarretara etortzen direnen kopurua eta banaketa, bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 1O. Número y distribución de las y los asistentes a congresos/convenciones según lugar de residencia, 2019*




% pisua | % peso

## 1.1.- Zer arrazoi subjektibo dituzten turistek Euskadiko kongresu edo biltzar batera etortzeko, zein den Euskadiko kongresu eta/edo biltzarraren egoitza eta non bizi diren

### Arrazoi subjektiboak

Bidaiaren arrazoi subjektiboek bidaiarekin zerikusia duten zenbait alderdik etortzen diren pertsonentzat duten garrantzia neurtzen dute. Analisia pertsona horietako bakoitzak bere itxaropenen arabera lortutako gogobetetasunarekin osatzen da.

Kongresua/biltzarra egiten den hiria alde batera utzita, programaren garrantzia gaiei eta edukiei dagokienez berdina da, nabarmendu beharreko ñabardurak ere badauden arren. Hala, Bilboko kongresu/biltzarretara etortzen direnen artean, programaren garrantziak ia puntuazio gorena lortzen du (4,9 5etik), eta Donostiara etortzen direnen artean, aldiz, ekitaldiaren edukia bezain garrantzitsua da ekitaldia egiten den hiria (4,4 bi kasuetan). Gasteizera etortzen direnen artean, bigarren tokian dago ekitaldia egiten den egoitzari ematen dioten garrantzia (4,5).

Lortutako gogobetetasun-mailari dagokionez, Bilboko kongresu/biltzarretara etortzen direnek bakarrik betetzen dituzte ekitaldiaren programaren inguruan zituzten itxaropenak. Donostiara nahiz Gasteizera etortzen direnentzat, ekitaldia egiten den hiriak gainditu egiten ditu beren itxaropenak. Kongresua/biltzarra egiten den hiria alde batera utzita, aipagarria da bisitariek Euskadiren inguruan lortutako gogobetetasuna.

## 1.1.- Qué motivaciones subjetivas interesan a las y los turistas a la hora de asistir a un congreso o convención a Euskadi, cuál es la sede del congreso y/o convención en Euskadi y dónde residen

### Motivaciones subjetivas

Las motivaciones subjetivas del viaje miden la importancia que tienen para las personas asistentes, determinados aspectos relacionados con el viaje. Este análisis se complementa con la satisfacción obtenida en cada uno de ellos en función de sus expectativas.

Independientemente de la ciudad donde se celebra el congreso /convención, la importancia del programa en cuanto a temas y contenidos es común, aunque existen matices significativos que hay que destacar. Así entre las y los asistentes a congresos/convenciones en Bilbao, la importancia del programa se sitúa casi con la máxima puntuación (4,9 sobre 5), mientras que entre las y los delegados que acuden a Donostia / San Sebastián es tan importante el contenido del evento como la ciudad donde se celebra (4,4 en ambos casos). Entre quienes se desplazan a Vitoria-Gasteiz, ocupa la segunda posición la relevancia que otorgan a la sede de celebración del acto (4,5).

En cuanto a los niveles de satisfacción alcanzados, únicamente las y los asistentes a congresos/convenciones en Bilbao ven cubiertas sus expectativas sobre el programa del evento. Tanto para las y los delegados que acuden a Donostia / San Sebastián como para quienes lo hacen a Vitoria-Gasteiz, la ciudad donde se celebra el evento es el aspecto que consideran que ha superado sus perspectivas. Al margen de la ciudad donde se celebra el congreso/convención, es notable la satisfacción alcanzada por las y los asistentes en cuanto a Euskadi.

*2S. grafikoa. Bidaiarekin zerikusia duten hainbat alderditan lortutako garrantziaren eta gogobetetasunaren balorazioa, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019. Eskala 1etik (garrantzi/gogobetetasun txikiena) 5era (garrantzi/gogobetetasun handiena). Erantzun anizkoitza*

*Gráfico 2S. Valoración de la importancia y satisfacción alcanzada con diversos aspectos relacionados con el viaje según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019. Escala del 1 (menos importante/satisfactorio) al 5 (más importante/satisfactorio). Respuesta múltiple*



Edozein delarik bisitarien jatorria, programa eta kongresua/biltzarra egiten den hiria dira bidaiaren alderdi garrantzitsuenak, azkenak garrantzi gutxiago badu ere. Ekitaldiaren gaiarekin lortutako gogobetetasuna handiagoa da nazioarteko bisitarien artean eta ekitaldia egiten den hiriak aise gainditzen ditu ordezkari nazionalen itxaropenak.

Sea cual sea la procedencia de las y los asistentes, el programa y la ciudad donde se celebra el congreso/convención son los aspectos más importantes del viaje, aunque este último con menor relevancia. La satisfacción alcanzada con la temática del evento es mayor entre las y los asistentes internacionales mientras que la ciudad donde se celebra el acto supera ampliamente las expectativas de las y los delegados estatales.

*2O. grafikoa Bidaiarekin zerikusia duten hainbat alderdiren garrantziari eta gogobetetasunari buruzko balorazioa, bisitarien bizilekuaren arabera, 2019. Eskala 1etik (garrantzi/gogobetetasun txikiena) 5era (garrantzi/gogobetetasun handiena). Erantzun anizkoitza.*
*Gráfico 2O. Valoración de la importancia y satisfacción alcanzada con diversos aspectos relacionados con el viaje según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019. Escala del 1 (menos importante/satisfactorio) al 5 (más importante/satisfactorio).Respuesta múltiple.*




## Bisitarien jatorria

Gasteizko eta Donostiako kongresu/biltzarretara etortzen direnen % 90 estatu barrukoak dira; Bilbok hartzen du nazioarteko ordezkari-kopuru handiena (% 27).

## El origen de las y los asistentes

El 90% de las y los asistentes a congresos/convenciones en Vitoria-Gasteiz y Donostia / San Sebastián son de origen estatal; en tanto que Bilbao acoge el mayor número de delegaciones internacionales (27%).

*1S. taula. Jatorriko merkatu nagusiak, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Tabla 1S. Principales mercados de origen según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*

| Jatorriko merkatu nagusiak Mercados Principales de Origen | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | Vitoria-Gasteiz | Bilbo \| Bilbao | Donostia \| San Sebastián |
|---|---|---|---|---|
| Gainerako aut. erk. \| Resto CC.AA. | 37,1 | 39,7 | 37,8 | 34,1 |
| Katalunia \| Cataluña | 16,3 | 11,9 | 15,6 | 19,9 |
| Madrilgo aut. erk.\| C.A. Madrid | 16,1 | 27,5 | 13,0 | 19,4 |
| Atzerriko gainerako herrialdeak \| Resto países extranjeros | 10,9 | 4,0 | 15,5 | 2,1 |
| Aldameneko aut. Erk \| CC. AA. vecinas | 6,0 | 7,2 | 5,1 | 7,6 |
| Euskadi | 3,6 | 3,8 | 1,6 | 8,7 |
| Britainia Handia \| Gran Bretaña | 3,2 | 1,4 | 4,6 | 0,5 |
| Italia | 1,9 | 0,6 | 2,7 | 0,3 |
| Frantzia \| Francia | 1,4 | 2,6 | 1,5 | 0,6 |
| Alemania | 1,3 | 0,7 | 1,2 | 1,7 |
| Benelux | 1,2 | 0,6 | 0,5 | 3,3 |
| AEB \| EEUU | 1,0 | 0,1 | 0,9 | 1,6 |

Honako hauek dira bisitari gehien dituzten jatorriko autonomia-erkidegoak: Katalunia eta Madril (biek % 21). Nazioarteko merkatuen artean Britainia Handia (% 16), Italia (% 9) eta Frantzia (% 7) nabarmentzen dira.

Las comunidades autónomas de procedencia que mayor número de asistentes aportan son, Cataluña y Madrid (ambas con un 21%). Entre los mercados internacionales destacan Gran Bretaña (16%), Italia (9%) y Francia (7%).

*1O. taula. Jatorriko merkatu nagusiak, bisitarien bizilekuaren arabera, 2019*
*Tabla 1O. Principales mercados de origen según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019*

| **Jatorriko merkatu nagusiak** Mercados Principales de Origen | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | Merkatu nazionalak \| Mercados estatales | Nazioarteko merkatuak \| Mercados Internacionales |
|---|---|---|---|
| **Gainerako aut. erk.** \| Resto CC.AA. | 37,1 | 46,9 | |
| **Katalunia** \| Cataluña | 16,3 | 20,6 | |
| **Madrilgo aut. erk.**\| C.A. Madrid | 16,1 | 20,4 | |
| **Atzerriko gainerako herrialdeak** \| Resto países extranjeros | 10,9 | | 52,0 |
| **Aldameneko aut. Erk** \| CC. AA. vecinas | 6,0 | 7,6 | |
| **Euskadi** | 3,6 | 4,5 | |
| **Britainia Handia** \| Gran Bretaña | 3,2 | | 15,5 |
| Italia | 1,9 | | 9,0 |
| **Frantzia** \| Francia | 1,4 | | 6,8 |
| Alemania | 1,3 | | 6,2 |
| Benelux | 1,2 | | 5,9 |
| **AEB** \| EEUU | 1,0 | | 4,6 |

## Arrazoi subjektiboen eboluzioak aldatu egin al dira denboraren poderioz?

2019an gorakada txiki bat ikusi da alderdi baloratuenean (4,7). Espero zitekeen bezala, kongresu/biltzarraren programa da. Hala ere, gainerako ezaugarrien joera negatibo arin bat azpimarratu behar da 2017-2016 aldiarekiko. Bereziki kongresu/biltzarrak programatutako programa sozialaren edo aisia-jardueren gaineko itxaropenei dagokienez, 2019an 3 puntuko batez besteko balorazioa izan baitu (2017-2016 aldiko 4,1 punturen aurrean). Azken alderdi horrek lotura izan dezake kongresuen enpresa antolatzaileek aisia-jarduera gutxiago proposatzearekin, gero ikusiko den bezala.

## Evoluciones en las motivaciones subjetivas ¿Han variado con el tiempo?

Se observa un ligero incremento en 2019 del aspecto más valorado (4,7), que como cabe esperar, es el programa del congreso/convención. Sin embargo, hay que subrayar una leve tendencia negativa respecto al año 2017-2016 del resto de los atributos. En especial de las expectativas sobre el programa social o actividades de ocio programadas por el congreso/convención con una valoración media de 3 puntos en 2019 (frente a 4,1 en 2017-2016). Este último aspecto, puede estar relacionado con una menor propuesta de actividades de ocio por parte de las empresas organizadoras de los congresos como se verá más adelante.

*GE.1 grafikoa. Bidaiarekin zerikusia duten alderdien garrantziaren balorazioa, 2017-2016, 2014, 2012 (eskala 1etik 5era, garrantzi gutxienekotik garrantzitsuenera).*
*Gráfico GE.1 Valoración de la importancia de los aspectos relacionados con el viaje, 2017-2016, 2014, 2012 (escala del 1 menos importante al 5 más importante).*



## 1.2.- Kongresu eta biltzarretako bisitarien profila

### Nolakoak dira Euskadiko kongresu eta biltzarretara etortzen direnak?

Euskadira kongresu/biltzar batera etortzen direnen batez besteko adina 41 urtekoa da. Zerbait handiagoa da Gasteizera joaten direnena, 44 urte baitituzte batez beste.

Ñabardura garrantzitsuak daude adin-taldeen araberako banaketan ekitaldiak egiten diren hiriaren arabera. Hala, Bilbon kongresu/biltzarretara etortzen diren gazteenak pilatzen dira: % 61ek 40 urte baino gutxiago. Gasteizen, aldiz, 60 urteko eta gehiagoko pertsonak % 36 dira, Euskadiko batez bestekoa baino askoz gehiago (% 19). Donostiako adin-talde ohikoena 40tik 49 urtera bitartekoa da (% 29).

## 1.2.- Perfil de las y los asistentes a congresos y convenciones

### Cómo son quienes asisten a congresos y convenciones en Euskadi

La media de edad de quienes visitan Euskadi para asistir a un congreso/convención se sitúa en 41 años. Algo más avanzada es la edad de quienes acuden a eventos en Vitoria-Gasteiz donde alcanzan casi los 44 años por término medio.

Hay matices importantes en la distribución por estratos de edad en función de la ciudad donde se celebran los actos. Así, en Bilbao se concentran las y los asistentes a congresos/convenciones más jóvenes; el 61% es menor de 40 años, mientras que en Vitoria-Gasteiz las personas de 60 y más años representan el 36%, muy por encima de la media en Euskadi (19%). El estrato de edad más común en Donostia / San Sebastián es de 40 a 49 años (29%).

*4S. grafikoa. Bisitarien batez besteko adina, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 4S. Edad media de las y los asistentes según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*




*5S. grafikoa. Bisitarien adin-geruzak, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 5S. Estratos de edad de las y los asistentes según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*




Ez dago ia alderik kongresu/biltzarretan parte hartzen dutenen batez besteko adinari dagokionez, haien jatorria kontuan hartuta (41 urte baino zerbait gehiago estatuko merkatuetatik etortzen direnen artean eta 42 nazioartekoen artean). Adin-tarteek, ordea, badituzte ñabardura txiki batzuk: nazioarteko ordezkarien ia hiru laurden 30 eta 49 urte arteko adin-tartean daude eta % 7k gainditzen du adin hori. Estatuko merkatuetan, aldiz, kopuru horiek % 51 eta % 22 dira, hurrenez hurren. Bisitari gazteen (29 urte arte) presentzia handiagoa dago estatuko merkatuan (% 27) nazioartekoan baino (% 18).

Apenas hay diferencias en cuanto a la edad media de las y los asistentes a congresos/convenciones si se tiene en cuenta su procedencia (algo más de 41 años las personas procedentes de los mercados estatales y 42 años las de los internacionales). Sin embargo, las franjas de edad sí ofrecen ciertos matices: casi tres cuartas partes de las y los delegados internacionales se sitúan en una franja intermedia de entre 30 y 49 años y apenas un 7% supera esa edad, mientras que entre los mercados estatales esas cifras representan el 51% y el 22% respectivamente. Hay una mayor presencia de asistentes jóvenes (hasta 29 años) en el mercado estatal (27%) frente al internacional (18%).

*4O. grafikoa. Bisitarien batez besteko adina, bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 4O. Edad media de las y los asistentes según lugar de residencia, 2019*




*5O. grafikoa. Bisitarien adin-geruzak, bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 5O. Estratos de edad de las y los asistentes según lugar de residencia, 2019*




Ekitaldia egiten den hiria eta bisitarien jatorria alde batera utzita, ikasketa unibertsitarioak edo maila altuagokoak dituzten pertsonak % 90 baino gehiago dira. Halaber, biztanleria landuna gehiengoa da (% 92).

Ikuspegi subjektibo batetik, ikusten da nazioarteko bisitari gehiago daudela errenta altuko mailan (% 32, estatukoen % 19ren aurrean). Parte-hartzaile horiek Bilbon egiten diren kongresu eta batzarretan presentzia handiagoa izateak, aldi berean, ekitaldi horietara joaten diren ordezkarien % 33k errenta altua dutela adieraztea eragiten du, Gasteizko ekitaldietara joaten direnen % 1 eta Donostiara joaten direnen % 3ren aurrean.

Independientemente de la ciudad donde se celebre el evento y de la procedencia de los y las asistentes, las personas con estudios universitarios o superiores superan el 90%. Del mismo modo, el peso de la población ocupada es predominante (92%).

Sí se detecta, desde un punto de vista subjetivo, que las y los asistentes internacionales se clasifican en mayor medida en un nivel de renta alta (32% frente al 19% de los estatales). La mayor presencia de estos participantes en congresos y convenciones celebradas en Bilbao provoca, a su vez, que el 33% de las y los delegados que acuden a estos actos declaren su pertenencia a rentas altas, frente al 1% de quienes acuden a eventos a Vitoria-Gasteiz y el 3% de quienes se desplazan a Donostia / San Sebastián.

## Norekin partekatzen duten bidaia

Euskadiko kongresu/biltzarretara etortzen direnen % 4 bakarrik etortzen da ekitaldian parte hartu behar ez duen beste pertsona batek/batzuek lagunduta. Parte-hartzaile ez diren pertsonen presentzia aldatu egiten da kongresu/biltzarraren hiriaren arabera: gutxienetik gehienerako hurrenkeran, Bilbora etortzen diren ordezkarien % 2 beste pertsona batzuekin batera etortzen da, % 6 Gasteizera etortzen direnen artean, eta % 8ra iristen da Donostiara etortzen direnen artean. Gasteizen nahiz Donostian, lagunduta etortzen direnak pertsona bakarrarekin etortzen dira eta Bilbon, berriz, beste bi pertsonarekin etortzea da ohikoena.

## Con quién comparten su viaje

Únicamente el 4% de las y los asistentes a congresos/convenciones en Euskadi viene acompañado por otra/s personas no participantes en el evento. La presencia de personas no asistentes varía en función de la ciudad donde se celebra el congreso/convención, así en orden creciente el 2% de las y los delegados que acuden a Bilbao lo hacen acompañados de otras personas, alcanza el 6% entre quienes se desplazan a Vitoria-Gasteiz y sube al 8% en el caso de las y los asistentes que viajan a Donostia / San Sebastián. Tanto en Vitoria como en Donostia / San Sebastián, quienes viajan acompañados lo hacen de una sola persona en tanto que en Bilbao la frecuencia más habitual son dos acompañantes.

## Aldatu egin al da Euskadiko kongresu/biltzarretara etortzen direnen profila?

Aurreko boladekin alderatuta, hazi egin da, pixka bat, Euskadiko kongresu eta biltzarretara estatutik etortzen direnen kopurua (% 79). Nazioarteko parte-hartzaileen beherakada esanguratsuagoa da merkatu nagusiagoetakoak ez diren herrialdeetatik datozenen artean (*beste herrialde batzuk*).

## ¿Ha variado el perfil de las y los asistentes a congresos/convenciones en Euskadi?

Aumenta ligeramente, respecto a las dos oleadas precedentes, el número de asistentes a congresos y convenciones en Euskadi de origen estatal (79%). El consecuente descenso de participantes internacionales es más significativo entre quienes proceden de países que no forman parte de los mercados principales (*otros países*).

*GE.2 grafikoa. Kongresu eta biltzarretara etortzen direnak bizi diren herrialdea (2019, 2017-2016, 2014, 2012))*
*Gráfico GE.2 País de residencia de las y los asistentes a congresos y convenciones (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*




2012az geroztik, Katalunia, Madrilgo Erkidegoa eta Andaluzia dira kongresu eta biltzarretara bisitari-kopuru handiena bidaltzen duten autonomia-erkidegoak. Handitzen jarraitzen du Valentziako Erkidegotik etortzen diren parte-hartzaileen kopuruak.

Cataluña, C. Madrid y Andalucía se mantienen como las comunidades autónomas que contribuyen con un mayor número de asistentes a congresos y convenciones, desde el año 2012. Sigue en ascenso el número de participantes procedentes de la Comunidad Valenciana.

*GE.3 grafikoa. Kongresu eta biltzarretara estatuko merkatuetatik etortzen direnak bizi diren Autonomia Erkidegoa (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*

*Gráfico GE.3 CC.AA de residencia de las y los asistentes a congresos y convenciones procedentes del mercado estatal (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*



2019an behera egin du Euskadiko kongresu/biltzarretara etortzen diren emakumeen kopuruak (% 43), 2014az geroztik gizonen ia proportzio berean etorri ondoren.

En 2019 desciende el número de mujeres asistentes a congresos/convenciones en Euskadi (43%), tras mantenerse prácticamente en la misma proporción que los hombres desde 2014.

*GE.4 grafikoa. Kongresu eta biltzarretara etortzen direnen sexua (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*
*Gráfico GE.4 Sexo de los y las asistentes a congresos y convenciones (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*




2019an kongresu eta biltzarretara etorritako pertsonen batez besteko adina urte bat handitu da (41 urte), 2014an eta 2017-2016 aldian erregistratutako 40 urteekin alderatuta. Adin-tarteen araberako banaketa homogeneo samarra izan da edizio guztietan. Hala ere, 2019an izan dira parte-hartzaile gazteenen (29 urte baino gutxiago) eta zaharrenen (60 urte eta gehiago) proportzio handienak aztertutako aldi guztietan.

La edad media de las personas asistentes a congresos y convenciones en 2019 aumenta en un año (41 años) desde los 40 años registrados en 2014 y 2017-2016. La distribución por franjas de edad se mantiene bastante homogénea en todas las ediciones, aunque en 2019 se reflejan las mayores proporciones de participantes más jóvenes (menos de 29 años) y más mayores (entre 60 y más años) de todas las oleadas de análisis.

*GE.5 grafikoa. Adin-geruzak (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*
*Gráfico GE.5 Estratos de Edad (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*



Erdi-mailako edo goi-mailako unibertsitate-ikasketek jarraitzen dute adierazten bisitarien prestakuntza-maila (% 93).

Los estudios universitarios medios o superiores siguen definiendo el nivel formativo de las y los asistentes (93%).

*GE.6 grafikoa. Ikasketa-maila (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*
*Gráfico GE.6 Nivel de estudios (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*




Aurreko edizioekin konparatuta, 2019an errenta handiko taldean (% 22, 2017-2016 aldiko % 3ren aurrean) eta errenta ertain/handiko (% 42 eta % 37) taldean kokatzen ziren bisitarien gehikuntza nabarmentzen da. Beste muturrean, ehuneko oso txikiarekin bada ere, lehen aldiz azaldu dira errenta txikiko mailetan kokatzen diren parte-hartzaileak eta igoera txiki bat nabaritu da beren burua errenta ertain/txikikotzat jotzen dutenen artean.

Destaca en 2019, respecto a ediciones anteriores, el notable incremento de asistentes que se sitúan en un estrato de renta alta (22% respecto al 3% de 2017-2016) y media/alta (42% frente al 37%). En el extremo opuesto, aunque con un peso porcentual muy bajo, afloran por primera vez las y los participantes que se sitúan en niveles de renta baja y se observa un ligero incremento entre quienes se consideran de renta media/baja.

*GE.7 grafikoa. Aitortutako errenta-maila (2019, 2017-2016, 2014)*
*Gráfico GE.7 Nivel de renta declarada (2019, 2017-2016, 2014)*



Azkenik, ekonomia-jarduerari dagokionez eta kongresu/biltzarren izaera profesionalaren ondorioz, pertsona landunek gehiengoa izaten jarraitzen dute (% 92), eta eutsi egin dio ikasleen ehunekoan 2017-2016ko edizioan ikusitako igoerak.

Por último, respecto a la actividad económica y como consecuencia del carácter profesional de los congresos/convenciones, siguen predominando las personas ocupadas (92%), pero además se mantiene el incremento detectado en la edición de 2017-2016 en el porcentaje de estudiantes.

*GE.8 grafikoa. Ekonomia-jarduerarekiko egoera (2019, 2017-2016, 2014)*
*Gráfico GE.8 Situación en relación con la actividad económica (2019, 2017-2016, 2014)*



BASQUE TOUR turismoaren euskal agentzia agencia vasca de turismo

## 1.3.- Zer garraiobide erabiltzen dituzten, non hartzen duten ostatu eta zenbat eguneko egonaldia egiten duten

### Bisitariek erabilitako garraiobideak

Hegazkina da (% 54) bisitariek Euskadira etortzeko erabiltzen duten garraiobide nagusia. Hala ere, bide horretatik iristen direnen proportzioa aldatu egiten da kongresu/biltzarren hirien arabera. Bilbon eta Donostian, garraiobide horrekin etortzen direnen kopurua % 67 eta % 38 artekoa da eta Gasteizen kasuan, aldiz, ozta-ozta iristen da % 15era.

Gasteizera eta Donostiara etortzen direnen artean, ibilgailua da (pribatua edo alokatua) Euskadira iristeko gehien erabiltzen den garraiobidea (% 57 eta % 44, hurrenez hurren). Garrantzitsua da nabarmentzea Gasteizen egindako ekitaldietara etortzen direnen artean trenaren erabilerak izan duen gorakada (% 22).

Behin helmugara iritsitakoan, bisitariek hainbat garraiobide erabiltzen dituzte mugitzeko. Desplazamendu-mota ohikoena oinez da baina, nabarmendu egin behar da ibilgailu pribatuaren erabilera Gasteizera etortzen diren parte-hartzaileen artean (% 42) beste bi hiriekin konparatuta (% 9 Bilbon eta % 4 Donostian), horietan garraio publikoa nagusi baita.

## 1.3.- Qué medios de transporte utilizan, dónde se alojan y cuántos días dura su estancia

### Los medios de transporte utilizados por los y las asistentes

El avión (54%) es el medio de transporte principal que utilizan las y los asistentes para llegar a Euskadi, aunque la proporción de acceso por esta vía varía en función de las ciudades donde se celebran los congresos/convenciones. Mientras que en Bilbao y en Donostia / San Sebastián, la entrada por este medio supone el 67% y el 38% respectivamente, en el caso de Vitoria-Gasteiz apenas alcanza el 15%.

Entre quienes se desplazan a Vitoria-Gasteiz y a Donostia / San Sebastián, el uso del coche (privado o alquilado) para llegar a Euskadi es el medio más utilizado (57% y 44% respectivamente). Es importante destacar la penetración del tren entre quienes acuden a eventos celebrados en Vitoria-Gasteiz (22%).

Una vez en destino, las y los asistentes utilizan diversos medios para desplazarse. El tipo de desplazamiento más habitual en todos ellos es andando, pero hay que destacar la notable utilización del vehículo privado entre las y los participantes que acuden a Vitoria-Gasteiz (42%) comparado con las otras dos ciudades (9% en Bilbao y 4% en Donostia / San Sebastián) donde prima el uso del transporte público.

*2S. taula. Bisitariek Euskadira iristeko gehien erabiltzen duten garraiobidea, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Tabla 2S. Medio de transporte principal utilizado por las y los asistentes para llegar a Euskadi según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*

| Euskadira iristeko garraiobide nagusia<br>Medio de Transporte Principal para llegar a Euskadi | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | Vitoria-Gasteiz | Bilbo \| Bilbao | Donostia \| San Sebastián |
|---|---|---|---|---|
| Hegazkina \| Avión | **54,0** | 14,8 | 66,7 | 37,7 |
| Ibilgailu pribatua \| Vehículo privado | **36,6** | 55,7 | 30,6 | 43,9 |
| Trena \| Tren | **6,1** | 22,1 | 0,8 | 12,9 |
| Autobusa \| Autobús | **3,0** | 5,7 | 1,6 | 5,6 |
| Alokatutako ibilgailua \| Vehículo alquilado | **0,3** | 1,6 | 0,2 | |
| Itsasontzia \| Barco | **0,0** | 0,1 | | |

*2O. taula. Bisitariek Euskadira iristeko gehien erabiltzen duten garraiobidea, bizilekuaren arabera, 2019*
*Tabla 2O. Medio de transporte principal utilizado por las y los asistentes para llegar a Euskadi según lugar de residencia, 2019*

| Euskadira iristeko garraiobide nagusia<br>Medio de Transporte Principal para llegar a Euskadi | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | Merkatu nazionalak \| Mercados estatales | Nazioarteko merkatuak \| Mercados Internacionales |
|---|---|---|---|
| Hegazkina \| Avión | **54,0** | 45,2 | 87,1 |
| Ibilgailu pribatua \| Vehículo privado | **36,6** | 43,3 | 11,4 |
| Trena \| Tren | **6,1** | 7,6 | 0,3 |
| Autobusa \| Autobús | **3,0** | 3,6 | 1,0 |
| Alokatutako ibilgailua \| Vehículo alquilado | **0,3** | 0,3 | 0,2 |
| Itsasontzia \| Barco | **0,0** | 0,0 | |

Dudarik gabe, hegazkina da nazioarteko merkatuetatik etortzen direnek gehien erabiltzen duten garraiobidea (% 87). Estatuko merkatuak, aldiz, ia proportzio berean erabiltzen ditu hegazkina (% 45) eta automobila (% 44) ekitaldietara joateko.

Sin lugar a duda, el modo aéreo es el más utilizado por las personas procedentes de mercados internacionales (87%) mientras que el mercado estatal hace uso casi en la misma proporción del avión (45%) como del coche (44%) para acudir a los eventos.

Jatorria alde batera utzita, Euskadin egoten diren denboran, kongresu/biltzarretan parte hartzen duten gehienak oinez eta garraio publikoan mugitzen dira. Alokatutako ibilgailuaren erabilera handiagoa da nazioarteko parte-hartzaileen artean eta ibilgailu pribatua hirugarren garraiobidea da estatuko parte-hartzaileen artean.

Durante su estancia en Euskadi, independientemente de su procedencia, las y los asistentes a congresos/convenciones se desplazan principalmente andando y en transporte público. El uso del vehículo alquilado tiene mayor incidencia entre las y los asistentes internacionales mientras que el vehículo privado ocupa el tercer lugar como medio de desplazamiento entre las y los asistentes de origen estatal.

*3S. taula. Euskadiko egonaldian turistek erabiltzen dituzten garraiobideak, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019. Erantzun anizkoitza (baiezko erantzunen ehunekoa)*

*Tabla 3S. Medios de transporte utilizados por las y los turistas durante su estancia en Euskadi según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019. Respuesta múltiple (porcentaje de respuestas afirmativas)*

| | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | Vitoria-Gasteiz | Bilbo \| Bilbao | Donostia \| San Sebastián |
|---|---|---|---|---|
| Oinez \| Andando | **85,4** | 67,7 | 89,0 | 83,7 |
| Garraio publikoa (autobusa, taxia, trena) \| Transporte Público (bus, taxi, tren) | **67,1** | 38,8 | 74,4 | 60,1 |
| Norberaren ibilgailua \| Vehículo propio | **10,9** | 42,1 | 8,5 | 3,9 |
| Alokatutako ibilgailua \| Vehículo alquilado | **2,9** | 2,4 | 2,9 | 2,9 |
| Motorra \| Moto | | | | |
| Bizikletan \| Bici | | | | |

*3O. taula. Euskadiko egonaldian turistek erabiltzen dituzten garraiobideak, bizilekuaren arabera, 2019. Erantzun anizkoitza (baiezko erantzunen ehunekoa)*

*Tabla 3O. Medios de transporte utilizados por las y los turistas durante su estancia en Euskadi según lugar de residencia, 2019. Respuesta múltiple (porcentaje de respuestas afirmativas)*

| | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | Merkatu nazionalak \| Mercados estatales | Nazioarteko merkatuak \| Mercados Internacionales |
|---|---|---|---|
| Oinez \| Andando | **85,4** | 83,0 | 94,3 |
| Garraio publikoa (autobusa, taxia, trena) \| Transporte Público (bus, taxi, tren) | **67,1** | 64,2 | 78,0 |
| Norberaren ibilgailua \| Vehículo propio | **10,9** | 12,6 | 4,5 |
| Alokatutako ibilgailua \| Vehículo alquilado | **2,9** | 1,2 | 9,3 |
| Motorra \| Moto | | | |
| Bizikletan \| Bici | | | |

## Ostatu-motak

Euskadira kongresu/biltzarretara etortzen diren gehienek (% 53) 4 edo 5 izarreko hoteletan hartzen dute ostatu. Gorabehera hori islatuta geratzen da ostatu horiek bai Gasteizen (% 50) eta bai Bilbon (% 60) dituzten kopuruetan. Ez, ordea, Donostiako ekitaldietara joaten direnen artean, horietako gehienek 1 edo 2 izarreko hoteletan eta pentsioetan hartzen baitute ostatu (% 48).

## Los tipos de alojamiento

La mayoría (53%) de las y los asistentes a congreso/convenciones en Euskadi se alojan en hoteles de 4 o 5 estrellas. Esta circunstancia queda reflejada en las proporciones de acceso que presentan estos alojamientos tanto en Vitoria-Gasteiz (50%) como en Bilbao (60%) pero no así entre quienes acuden a eventos en Donostia / San Sebastián que con mayor asiduidad se alojan en hoteles de 1 o 2 estrellas y pensiones (48%).

*6S. grafikoa. Bisitariek ostatu hartzen duten establezimendu-mota, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*

*Gráfico 6S. Tipo de establecimiento donde se alojan las y los asistentes según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*



Nazioarteko bisitarien artean, gehienek lau eta bost izarreko hotelak erabiltzen dituzte (% 64), eta estatuko merkatuko bisitariak berdin banatzen dira establezimendu horien eta 3 edo izar gutxiagokoen artean.

Entre las y los asistentes internacionales hay un predominio de uso de los alojamientos de cuatro y cinco estrellas (64%) mientras que el mercado estatal se reparte a partes iguales entre estos establecimientos y los de 3 o menos estrellas.

*6O. grafikoa. Bisitariek ostatu hartzen duten establezimendu-mota, bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 6O. Tipo de establecimiento donde se alojan las y los asistentes según lugar de residencia, 2019*




## Bidaiako ostatu-gauak

Euskadiko kongresu/biltzarretara etortzen direnek, batez beste, 3 ostatu-gau egiten dituzte, zer hiritan ostatu hartzen duten kontuan izan gabe. Ostatu-gau horietako gehienen arrazoia ekitaldira joatea da; izan ere, bisitarien % 15ek soilik luzatzen dute Euskadiko egonaldia aisia-arrazoiengatik. Gasteizko kongresu/biltzarretara etortzen direnek, batez beste, gau batez luzatzen dute egonaldia aisia-arrazoiengatik. Donostiara joaten direnek bi gau luzatzen dute egonaldia. Eta Bilbora joaten direnek, batez beste, hiru gau luzatzen dute egonaldia aisia-arrazoiengatik.

## Las pernoctaciones del viaje

Por término medio las y los asistentes a congresos/convenciones en Euskadi pernoctan 3 noches, independientemente de cual sea la ciudad donde se alojan. La mayor parte de estas pernoctaciones están motivadas por la asistencia al evento ya que únicamente el 15% de las y los asistentes aumentan su estancia en Euskadi por motivos de ocio. Entre quienes acuden a congresos/convenciones celebrados en Vitoria-Gasteiz, por término medio alargan su permanencia por ocio una noche. Las y los asistentes que se desplazan a Donostia/San Sebastián lo hacen por dos noches. Y tres noches es el punto medio de pernoctaciones por ocio entre quienes viajan a Bilbao.

*7S. grafikoa. Euskadin egindako ostatu-gauen batez bestekoa, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 7S. Media de pernoctaciones realizadas en Euskadi según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*



Estatuko merkatuetatik etorritako turistek, batez beste, ia 3 gau ematen dituzte eta nazioarteko merkatuetatik etortzen direnek, aldiz, gau bat gehiago ematen dute (4 gau). Aisia-arrazoiengatik egonaldia luzatzen duten bisitari-kopurua % 11ra iristen da estatuko ordezkarien artean, bi ostau-gaurekin batez beste, eta % 28ra iristen da nazioarteko merkatuetatik etortzen direnen artean, hiru gau gehiagorekin aisia-egonaldi horietarako.

Mientras que por término medio las y los turistas procedentes de mercados estatales pernoctan durante casi 3 noches, quienes provienen de los mercados internaciones incrementan su estancia una noche más (4 noches). El número de asistentes que prolonga su estancia por motivaciones de ocio llega al 11% entre las y los delegados estatales, con dos noches de alojamiento por término medio, y alcanza el 28% para las y los originarios de mercados internacionales, con una duración de tres noches para esas estancias de ocio.

*7O. grafikoa. Euskadin egindako ostatu-gauen batez bestekoa bisitarien bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 7O. Media de pernoctaciones realizadas en Euskadi según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019*




## Eskaera turistikoaren joerak

Euskadiko kongresu eta biltzarretara etortzen diren turista **gehienek** ostatu hartzen duten **establezimendu-mota** hotela da. 2014az geroztik, establezimendu-mota horretan gaua ematen duten parte-hartzaile kopurua % 80tik gorakoa da.

## Tendencias de la demanda turística

**El tipo mayoritario de establecimiento** donde se alojan las y los turistas asistentes a congresos y convenciones en Euskadi son los establecimientos hoteleros. Desde 2014 la cifra de participantes que pernoctan en este tipo de establecimientos supera el 80%.

*GE.9 grafikoa. Bisitariek gaua ematen duten establezimendu-mota (2019, 2017-2016, 2014)*
*Gráfico GE.9 Tipo de establecimiento donde pernoctan las y los asistentes (2019, 2017-2016, 2014)*



Kongresu eta biltzarretara etortzen diren eta hoteletan ostatu hartzen duten turista gehienek kategoria handienekoak aukeratzen dituzte (4 eta 5 izar), eta gehikuntza handia egon da 2017-2016 aldiko datuekin konparatuta (ehuneko 10 puntutik gorakoa). Gehikuntza horren arrazoi nagusia 5 izarreko hotelak izaten ari diren gorakada da.

Las y los turistas asistentes a congresos y convenciones que se alojan en hoteles, siguen decantándose por los de mayor categoría (4 y 5 estrellas) con un notable incremento respecto a los datos de 2017-2016 (crece más de 10 puntos porcentuales). Este aumento viene determinado, básicamente, por el crecimiento que experimentan los hoteles de 5 estrellas.

*GE.10 grafikoa. Bisitariek gaua ematen duten establezimenduaren kategoria (2019, 2017-2016, 2014)*
*Gráfico GE.10 Categoría del establecimiento donde pernoctan las y los asistentes (2019, 2017-2016, 2014)*




**Kongresu/biltzarrera joateak eragindako ostatu-gauak eta bisita osoaren iraupena.**
2012tik, Euskadiko ostatu-gauen kopurua, aisia-arrazoiengatiko ostatu-gauak barne hartuta, 3 gauekoa da, eta horietako gehienek lotura zuzena dute kongresu/biltzarrarekin. Euskadin aisia-arrazoiengatik beste gauren bat egiten gelditu diren turisten artean, batez besteko egonaldia 2 egunekoa izan da.

**Pernoctaciones motivadas por la asistencia al congreso/convención y duración total de la visita.**
Desde el año 2012, el número medio de pernoctaciones en Euskadi, incluyendo las pernoctaciones por ocio es de 3 noches siendo la mayor parte las directamente relacionadas con el congreso/convención. Entre las y los turistas que se han quedado a pernoctar alguna noche más en Euskadi por motivos de ocio, la estancia media ha sido de 2 días.

*GE.11 grafikoa. Kongresu/biltzarrera etortzearen ondorioz Euskadin egindako ostatu-gauak eta bisita osoaren iraupena (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*
*Gráfico GE.11 Pernoctaciones realizadas en Euskadi por la asistencia al congreso/convención y la duración total de la visita (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*



**Garraiobideak**
Euskadira kongresu/biltzarretara etortzen diren gehienek erabiltzen duten garraiobidea izaten jarraitzen du hegazkinak, aurreko edizioen antzeko kopuruan (% 54). Berriz era ibilgailu pribatuaren gehikuntza txiki bat nabaritu da eta, horren ondorioz, garraio publikoan beste beherakada bat egon da (trena edo autobusa).

**Medios de transporte**
Se mantiene el avión como el medio de transporte utilizado por la mayoría de las y los asistentes a congresos/convenciones en Euskadi en similares términos que en ediciones anteriores (54%). Se observa de nuevo un ligero aumento del uso del vehículo privado que se traduce en una nueva caída en el resto de transporte público (tren o autobús).

*GE.12 grafikoa. Euskadira bidaiatzeko garraiobide nagusia (2019, 2017-2016, 2014)*
*Gráfico GE.12 Medio de transporte principal del viaje hasta Euskadi (2019, 2017-2016, 2014)*




Behin Euskadira iritsitakoan, garraio publikoaren erabilera txikiagoa nabaritzen da aurreko aldiekin konparatuta. Horren ondorioz, oinezko desplazamenduak gehitu egin dira eta automobilaren erabilera egonkor mantendu da.

Una vez en Euskadi se detecta, respecto a oleadas anteriores, un menor uso del transporte público en favor de un incremento en los desplazamientos andando mientras que el peso del uso del automóvil se mantiene estable.

*GE.13 grafikoa. Euskadiko egonaldiko garraiobide nagusia (2019, 2017-2016, 2014)*
*Gráfico GE.13 Medio de transporte principal durante su estancia en Euskadi (2019, 2017-2016, 2014)*



## 2.- EUSKADIKO KONGRESU ETA BILTZARRETARA ETORRITAKO PERTSONEK EGINDAKO AISIA-JARDUERAK ETA BISITATUTAKO LEKUAK

## 2.- ACTIVIDADES DE OCIO PRACTICADAS Y LUGARES VISITADOS POR LAS Y LOS ASISTENTES A CONGRESOS Y CONVENCIONES EN EUSKADI

Kongresu/biltzarraren esparruan antolatutako gizarte-ekitaldiek eta/edo aisia-jarduerek parte-hartzaileen interakzio sozial, profesional eta pertsonala sustatzen dute eta ekitaldia egiten den lekua ikuspegi integratzaileago batetik ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematen dute.

Euskadiko kongresu/batzarretan parte hartzen duten gehienek (% 57) beren kasa antolatzen dituzte aisia-jarduerak. % 29k ekitaldiaren antolatzaileak planifikatutako programetan hartzen du parte eta % 15ek bi proposamenak konbinatzen ditu.

Batez beste, Euskadiko kongresu/biltzarretara etortzen direnen % 73k hartzen du parte aisia-jardueretan egonaldian zehar. Kopurua Gasteizko ekitaldietan parte hartzen dutenen % 44 eta Bilbo eta Donostiako ordezkarien ia % 77 artean mugitzen da.

Los actos sociales y/o las actividades de ocio programadas en el ámbito del congreso/convención, fomentan la interacción social, profesional y personal de las personas participantes y permiten conocer y disfrutar del lugar de celebración del evento desde una perspectiva más integradora.

La mayoría de las y los participantes en congresos/convenciones en Euskadi organizan las actividades de ocio por su cuenta (57%). El 29% realiza programas planificados por la organización del evento y el 15% combina ambas propuestas.

Como promedio, el 73% de las y los asistentes a congresos/convenciones en Euskadi participa en actividades de ocio durante su estancia. Esta cifra oscila entre el 44% de las y los participantes en eventos en Vitoria-Gasteiz y el casi 77% de las y los que delegados en Bilbao y en Donostia / San Sebastián.

*8S. grafikoa. Bisitarien parte-hartzea aisia-jardueretan (jarduerak egin dituztenen ehunekoa) kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*

*Gráfico 8S. Participación de las y los asistentes en actividades de ocio (porcentaje de personas que las han realizado) según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*




Ez da alde handirik nabaritzen, jatorriaren arabera, bisitariek Euskadiko egonaldian egindako aisia-jardueretan. Estatuko merkatuetatik etorritako pertsonen artean, datu hori ia % 72ra iristen da. Nazioartekoen artean 7 puntu handiagoa da (% 79).

No se aprecia demasiada diferencia en función de lugar de procedencia de las y los asistentes en cuanto a la práctica de actividades de ocio durante su estancia en Euskadi. Entre las personas que proceden de mercados estatales, este dato casi llega al 72%. Entre las y los internacionales es 7 puntos superior (79%).

*8O. grafikoa. Bisitarien parte-hartzea aisia-jardueretan (jarduerak egin dituztenen ehunekoa), bizilekuaren arabera, 2019*

*Gráfico 8O. Participación de las y los asistentes en actividades de ocio (porcentaje de personas que las han realizado) según lugar de residencia, 2019*




Jatorria edo ekitaldiaren hiria edozein dela ere, inkestatutako ia pertsona guztiek (% 98) denbora-falta argudiatzen dute aisia-jarduerak ez egiteko arrazoi nagusi gisa.

Sea cual sea el origen o la ciudad del evento, prácticamente todas las personas encuestadas (98%) aducen la falta de tiempo como la razón principal para no realizar actividades de ocio.

## 2.1.- Jarduerei buruzko aldez aurretiko informazioa

## 2.1.- Información previa relativa a las actividades

### Aldez aurretiko informazioaren balioa

Kongresu/biltzarretara etortzen direnen % 59k jatorrian jaso du edo bere kasa bilatu du ekitaldiaren hirian edo Euskadin egin ditzaketen aisia-jarduerei buruzko informazioa. Aldez aurretiko informazioa jaso eta bilatzearen batez bestekoaren gainetik daude Bilbon egindako kongresu/biltzarretara etortzen diren ordezkariak (% 67) eta nazioarteko merkatuetatik etortzen direnak (% 63).

### Valor de la información previa

El 59% de las  y los asistentes a congresos/convenciones ha recibido o buscado por su cuenta, en su lugar de origen, algún tipo de información acerca de las actividades de ocio que podría realizar en la ciudad donde se celebra el evento o en Euskadi. Por encima de la media en cuanto a la recepción y búsqueda de información previa se encuentran las y los delegados que acuden a congresos/convenciones celebrados en Bilbao (67%) y quienes proceden de mercados internacionales (63%).

*9S grafikoa. Bisitariek egin ditzaketen aisia-jarduerei buruzko aldez aurretiko informaziorako sarbidea kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 9S. Acceso a información previa relativa a las actividades de ocio que podrían realizar las y los asistentes según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*




*9O grafikoa. Bisitariek egin ditzaketen aisia-jarduerei buruzko aldez aurretiko informaziorako sarbidea bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 9O. Acceso a información previa relativa a las actividades de ocio que podrían realizar las y los asistentes según lugar de residencia, 2019*




Ekitaldietan izan eta informaziorik jaso ez dutenen ia % 65ek esan du gustatuko litzaiokeela informazioa jasotzea. Kopurua aldatu egiten da kongresuetara Donostiara etortzen direnen arteko % 37, Bilbon ostatu hartzen dutenen % 46 eta Gasteizera etortzen diren ordezkarien % 89ren artean.

Informaziorik jaso nahi ez dutenek argudiatzen duten arrazoi nagusia, aisia-jarduerak egiteko denborarik ez izateaz gain, informazio horren premiarik ez izatea da, helmuga aurretik ezagutzen zutelako. Jusitifikazio horrek pisu handiagoa du estatuko merkatuetatik etorritakoen artean.

Casi el 65% de las y los asistentes a eventos que no han recibido ninguna información afirma que sí le hubiera gustado recibirla, cifra que varía entre el 37% de quienes acuden a congresos en Donostia / San Sebastián, el 46% de quienes se alojan en Bilbao y el 89% de las y los delegados que se desplazan a Vitoria-Gasteiz.

La principal razón que argumentan quienes no desean recibir información, además de la falta de tiempo para realizar actividades de ocio, es que no necesitan esa información porque ya conocían previamente el destino. Justificación que tiene más peso entre las y los asistentes procedentes de mercados estatales.

### Informazio-bideak jarduerak antolatzeko eta erreserbatzeko

Kongresu/biltzarretara Gasteizera (% 72) eta Bilbora (% 69) etortzen diren gehienek ekitaldiaren antzolatzaileen bitartez soilik jasotzen dute informazioa. Kongresu/biltzarretara Donostiara etortzen direnen artean, aldiz, % 30ek bakarrik lortzen du informazioa bide horretatik. Kongresu/biltzarren antolatzaileek informazioa baldintza berdinetan banatzen diete merkatu nazionaletatik nahiz nazioartekoetatik datozenei.

### Canales de información para la organización y reserva de las actividades

La mayoría de las y los asistentes a congresos/convenciones en Vitoria-Gasteiz (72%) y Bilbao (69%) reciben la información solo a través de la organización del evento. Sin embargo, apenas la obtienen por este medio el 30% de quienes acuden a congresos/convenciones en Donostia / San Sebastián. La organización de los congresos/convenciones difunden la información en los mismos términos tanto a procedentes de mercados nacionales como internacionales.

*10S grafikoa. Aisia-jarduerei buruzko informazioa jasotzeko erabilitako bidea, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019. Oinarria: aldez aurretiko informazioa jaso duten bisitariak*
*Gráfico 10S.Canales a través de los cuales ha recibido información sobre las actividades de ocio según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019. Base: asistentes que han recibido información previa*




*10O grafikoa. Aisia-jarduerei buruzko informazioa jasotzeko erabilitako bidea, bisitarien bizilekuaren arabera, 2019. Oinarria: aldez aurretiko informazioa jaso duten bisitariak*
*Gráfico 10O.Canales a través de los cuales ha recibido información sobre las actividades de ocio según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019. Base: asistentes que han recibido información previa*




Beren kasa informazioa bilatu nahi dutenen % 38k, batez ere inguruko pertsonen bidez (% 59), gida eta liburuxken bidez (% 48) edo Internet bidez (% 47) egiten dute. Baina kongresua egiten den hiriaren arabera eta bisitarien arabera, badaude zehaztu beharreko ñabardurak. Hala, Bilboko ekitaldietara etortzen direnen % 76k gidak eta liburuxkak erabiltzen ditu, eta nazioarteko parte-hartzaileen % 58k. Kongresu/biltzarretan Donostian parte-hartzen dutenen % 80k eta ekitaldietara Gasteizera etortzen direnen ia % 69k Internet bidez bilatzen dute informazioa.

El 38% de las y los asistentes que buscan informarse por su cuenta lo hacen principalmente a través de personas cercanas (59%), guías y folletos (48%) o internet (47%). Pero existen matices en función de la ciudad donde se celebra el congreso o el origen de las y los asistentes que conviene precisar. Así, las guías y folletos son utilizadas por el 76% de quienes acuden a eventos celebrados en Bilbao y por el 58% de las y los participantes internacionales. El 80% de las y los participantes en congresos/convenciones en Donostia/ San Sebastián y casi el 69% de quienes asisten a eventos en Vitoria-Gasteiz buscan la información a través de internet.

*11S. taula. Aisia-jarduerei buruzko informazioa bilatzeko erabilitako bitartekoak, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019. Oinarria: aldez aurretiko informazioa jaso duten bisitariak.*
*Gráfico 11S.Medios de información utilizados para la búsqueda de información sobre actividades de ocio según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019. Base: asistentes que han buscado información previa.*

| Informazio-iturri nagusiak **Principales Fuentes de Información** | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | **Vitoria-Gasteiz** | **Bilbo \| Bilbao** | **Donostia \| San Sebastián** |
|---|---|---|---|---|
| Lagunak; senideak \| Amigos/as; Familiares | **59,2** | 46,9 | 67,1 | 48,0 |
| Gidak, liburuxkak \| Guías, folletos | **48,3** | 20,3 | 75,5 | 7,8 |
| Internet | **47,4** | 68,5 | 25,4 | 80,2 |
| Artikuluak, erreportajeak, publizitatea \| Artículos, reportajes, publicidad | **7,8** | 32,7 | 3,5 | 11,0 |
| Turismoko profesionalak, aurrez aurre \| Profesionales del Turismo, en persona | **6,3** | 25,9 | 3,0 | 8,8 |
| Azokak/Oporr-aretoak \| Ferias/Salones de Vacaciones | **3,0** | | 4,5 | 1,2 |

*11O taula. Aisia-jarduerei buruzko informazioa bilatzeko erabilitako bitartekoak, bisitarien bizilekuaren arabera, 2019. Oinarria: aldez aurretiko informazioa jaso duten bisitariak.*
*Gráfico 11O.Medios de información utilizados para la búsqueda de información sobre actividades de ocio según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019. Base: asistentes que han buscado información previa.*

| Informazio-iturri nagusiak **Principales Fuentes de Información** | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | Merkatu nazionalak \| Mercados Nacionales | Nazioarteko merkatuak \| Mercados Internacionales |
|---|---|---|---|
| Lagunak; senideak \| Amigos/as; Familiares | **59,2** | 66,4 | 32,2 |
| Gidak, liburuxkak \| Guías, folletos | **48,3** | 45,8 | 57,5 |
| Internet | **47,4** | 49,3 | 40,2 |
| Artikuluak, erreportajeak, publizitatea \| Artículos, reportajes, publicidad | **7,8** | 5,5 | 16,1 |
| Turismoko profesionalak, aurrez aurre \| Profesionales del Turismo, en persona | **6,3** | 6,3 | 6,6 |
| Azokak/Oporr-aretoak \| Ferias/Salones de Vacaciones | **3,0** | 3,3 | 2,0 |

## 2.2.- Euskadira kongresu eta biltzarretara etortzen direnek egindako aisia-jarduerak, lekuak eta txangoak

Kongresu/biltzarraren hiria alde batera utzita, bisitari gehienek hiru jarduera-mota egiten dituzte: gastronomikoak, hiriko turismoa eta turismo kulturala. Baina hiri bakoitzeko bisitariek beren berezitasunak dituzte. Kongresu/biltzarretara Gasteizera etortzen direnen artean, honako hauek dira gehien egiten diren jarduerak: hiria ezagutzea bertako kaleetan paseatuz, pintxotan ibiltzea (otorduetatik kanpo) eta hiriko monumentuak eta ondarea bisitatzea. Bilboko ekitaldietara etortzen direnei, hiribilduan paseatzez gain, asko gustatzen zaie jatetxe on batean jatea, eta museoak, erakusketak edo galeriak bisitatzen dituzte. Donostiara etortzen direnek, berriz, hirian paseatzeaz gain, batez ere jarduera gastronomikoak egiten dituzte, hala nola pintxotan ibiltzea edo jatetxe onetan jatea.

## 2.2.- Actividades de ocio, lugares y excursiones realizadas por las y los asistentes a congresos y convenciones durante su visita a Euskadi

Al margen de la ciudad donde se celebra el congreso/convención, las y los asistentes realizan principalmente tres tipos de actividades: gastronómicas, de turismo en la ciudad y de turismo cultural. Ahora bien, hay ciertas particularidades que caracterizan a las y los asistentes de cada una de las ciudades. Entre quienes acuden a congresos/convenciones en Vitoria-Gasteiz, las actividades más realizadas son conocer la ciudad paseando por sus calles, ir de pintxos (fuera de las comidas) y visitar monumentos y patrimonio de la ciudad. Las y los asistentes a eventos en Bilbao además de pasear por la Villa, aprecian comer en un buen restaurante y visitan museos, exposiciones o galerías. Mientras que quienes se han desplazado a Donostia / San Sebastián, además de los paseos por la ciudad, realizan actividades principalmente gastronómicas como ir de pintxos o comer en buenos restaurantes.

*4S. taula. Bisitariek egindako aisia-jarduerak, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019. Erantzun anizkoitza (baiezko erantzunen ehunekoa)*

*Tabla 4S. Actividades de ocio realizadas por las y los asistentes según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019. Respuesta Múltiple (porcentaje de respuestas afirmativas)*

| Egindako jarduerak<br>**Actividades realizadas** | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | **Vitoria-Gasteiz** | **Bilbo \| Bilbao** | **Donostia \| San Sebastián** |
|---|---|---|---|---|
| Gastronomiari lotutako jarduerak \| Actividades relacionadas con la gastronomía | **93,2** | 67,7 | 93,8 | 97,7 |
| Hiriko turismoa \| Turismo en la ciudad | **82,1** | 67,0 | 83,3 | 82,7 |
| Turismo kulturala \| Turismo cultural | **52,7** | 36,9 | 63,0 | 30,2 |
| Beste jarduera batzuk (erosketak, bainu-etxeak,…) \| Otras actividades (compras, balnearios,…) | **19,0** | 2,5 | 21,6 | 16,2 |
| Ibilbide turistikoak \| Rutas turísticas | **17,1** | 2,7 | 23,4 | 4,4 |
| Kostaldeko turismoa \| Turismo costero | **13,1** | 0,2 | 15,3 | 10,6 |
| Turismo aktiboa \| Turismo activo, actividades | **4,2** | 3,1 | 4,2 | 4,5 |
| Naturan atsedena hartzeko jarduerak \| Actividades de descanso en la naturaleza | **2,6** | 27,8 | 0,7 | 1,2 |
| Ikuskizunak \| Espectáculos | **1,4** | | 0,3 | 4,5 |
| Jaiari lotutako jarduerak \| Actividades lúdico festivas | | | | |

Nazioarteko turistek (lehen adierazi den bezala, Bilbon presentzia handiagoa dutenek) merkatu nazionaletatik datozenek baino gehiago egiten dituzte museoak, erakusketak eta galeriak bisitatzeko jarduerak. Nazionalei nahiz nazioartekoei gustatzen zaie jatetxe onetan otorduak egitea eta ohikoagoa da estatuko bisitarien artean pintxotan ibiltzea (otorduetatik kanpo).

Las y los turistas internacionales (como se ha dicho, con una mayor presencia en Bilbao), realizan actividades de visita a museos, exposiciones y galerías en mayor medida que los provenientes de mercados nacionales. Coinciden ambos en disfrutar de comidas en buenos restaurantes y es más común la actividad de ir de pintxos (fuera de las comidas) entre las y los asistentes estatales.

*4O. taula. Bisitariek egindako aisia-jarduerak bizilekuaren arabera, 2019. Erantzun anizkoitza (baiezko erantzunen ehunekoa)*
*Tabla 4O. Actividades de ocio realizadas por las y los asistentes según lugar de residencia, 2019. Respuesta Múltiple (porcentaje de respuestas afirmativas)*

| Egindako jarduerak **Actividades realizadas** | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | Merkatu nazionalak \| Mercados Nacionales | Nazioarteko merkatuak \| Mercados Internacionales |
|---|---|---|---|
| Gastronomiari lotutako jarduerak \| Actividades relacionadas con la gastronomía | **93,2** | 92,2 | 96,4 |
| Hiriko turismoa \| Turismo en la ciudad | **82,1** | 80,1 | 89,0 |
| Turismo kulturala \| Turismo cultural | **52,7** | 47,0 | 72,1 |
| Beste jarduera batzuk (erosketak, bainu-etxeak,…) \| Otras actividades (compras, balnearios,…) | **19,0** | 15,2 | 32,0 |
| Ibilbide turistikoak \| Rutas turísticas | **17,1** | 8,8 | 45,2 |
| Kostaldeko turismoa \| Turismo costero | **13,1** | 11,2 | 19,8 |
| Turismo aktiboa \| Turismo activo, actividades | **4,2** | 4,7 | 2,5 |
| Naturan atsedena hartzeko jarduerak \| Actividades de descanso en la naturaleza | **2,6** | 2,8 | 1,8 |
| Ikuskizunak \| Espectáculos | **1,4** | 0,5 | 4,5 |
| Jaiari lotutako jarduerak \| Actividades lúdico festivas | | | |

Bisitariek, batez beste, 4 aisia-jarduera egiten dituzte egonaldian. Gutxien egiten dituztenak Gasteizko kongresu/biltzarretara etortzen direnak dira (2 jarduera, Bilbora edo Donostiara etortzen diren ordezkarien 4 jardueren aurrean). Halaber, nazioarteko bisitariak dinamikoagoak dira aisia-jarduerak egiteko orduan merkatu nazionaletatik etortzen direnak baino (5 jarduera eta ia 4 jarduera, hurrenez hurren).

Ondoren emango diren datuak behar bezala interpretatzeko, ondorengo ataletan aurkeztutako kopuruak etorritakoek egindako bisitekin bat datozela adierazi behar da, eta ez bisitari-kopuruarekin.

Bisitariek ostatu hartzen duten hiria alde batera utzita, gehien bisitatzen dituzten baliabideak hirigune historikoak dira (Bilboko Zazpikaleak, Donostiako Alde Zaharra eta Gasteizko Erdi Aroko Almendra). Bisitatutako gainerako lekuen ñabardura honako hauek zehazten dute: ondareak (Gasteizen kasuan), museoek (Bilboren kasuan) eta hondartzako ibilaldiek eta egonaldiek (Donostiaren kasuan); kongresua/biltzarra egiten den hiriko ibilbideak ahaztu gabe.

Por término medio, las y los asistentes realizan 4 actividades de ocio durante su estancia. Los menos activos se encuentran entre quienes acuden a congresos/convenciones en Vitoria-Gasteiz (2 actividades frente a 4 de las y los delegados que acuden a Bilbao o a Donostia / San Sebastián). Del mismo modo, las y los asistentes internacionales son más dinámicos en la práctica de actividades de ocio que los procedentes de mercados nacionales (5 actividades frente a casi 4).

Para una correcta interpretación de los datos ofrecidos a continuación, hay que señalar que las cifras presentadas en los siguientes apartados se corresponden con el número de visitas realizadas por las y los asistentes y no con el número de asistentes que las realizan.

Independientemente de la ciudad donde se alojan las y los asistentes, uno de los recursos más visitados son los cascos históricos de las ciudades (el Casco Viejo de Bilbao, la Parte Vieja de Donostia / San Sebastián y la Almendra Medieval de Vitoria-Gasteiz). El matiz que caracteriza el resto de los lugares visitados viene determinado por el patrimonio (en el caso de Vitoria-Gasteiz), los museos (en el caso de Bilbao) y los paseos y estancias en la playa (en el caso de Donostia / San Sebastián); sin olvidar los recorridos por la propia ciudad donde se celebra el congreso/convención.

*12_1S. grafikoa. Gasteizen ostatu hartzen duten turistek udalerrian egindako egonaldian bisitatutako lekuak, 2019. Oinarria: bisitatutako edo bisitatu beharreko lekuak*
*Gráfico 12_1S. Lugares visitados por las y los asistentes que se alojan en Vitoria-Gasteiz durante su estancia en el municipio, 2019. Base: lugares visitados o a visitar*




*12_2S. grafikoa. Bilbon ostatu hartzen duten turistek udalerrian egindako egonaldian bisitatutako lekuak, 2019. Oinarria: bisitatutako edo bisitatu beharreko lekuak*
*Gráfico 12_2S. Lugares visitados por las y los asistentes que se alojan en Bilbao durante su estancia en el municipio, 2019. Base: lugares visitados o a visitar*




*12_3S. grafikoa. Donostian ostatu hartzen duten turistek udalerrian egindako egonaldian bisitatutako lekuak, 2019. Oinarria: bisitatutako edo bisitatu beharreko lekuak*
*Gráfico 12_3S. Lugares visitados por las y los asistentes que se alojan en Donostia / San Sebastián durante su estancia en el municipio, 2019. Base: lugares visitados o a visitar*



*13_1O. grafikoa. Parte-hartzaile nazionalek bisitatutako lekuak ostatu hartzen duten udalerrian egindako egonaldian, 2019. Oinarria: bisitatutako edo bisitatu beharreko lekuak*
*Gráfico 13_1O. Lugares visitados por las y los asistentes estatales durante su estancia en el municipio donde se alojan, 2019. Base: lugares visitados o a visitar*




*13_2O. grafikoa. Nazioarteko parte-hartzaileek bisitatutako lekuak ostatu hartzen duten udalerrian egindako egonaldian, 2019. Oinarria: bisitatutako edo bisitatu beharreko lekuak*
*Gráfico 13_2O. Lugares visitados por las y los asistentes internacionales durante su estancia en el municipio donde se alojan, 2019. Base: lugares visitados o a visitar*




Egindako aisia-jarduerek, oro har, parte-hartzaileen itxaropenak bete dituzte eta beste guztien gainetik Bilboko kongresu/biltzarretara etorritakoek, % 33k esan baitu itxaropenak gainditu egin dituela. Itxaropenak gainditzeko indize txikiagoa ikusten da Gasteizera eta Donostiara etorri direnen artean (% 10 eta % 9, hurrenez hurren).

En general las actividades de ocio realizadas han cubierto las expectativas de las y los asistentes destacando sobre todos quienes acuden a congresos/convenciones en Bilbao donde el 33% afirma que sus perspectivas se han visto superadas. Menor índice de superación se observa entre quienes se han desplazado a Vitoria-Gasteiz y Donostia / San Sebastián (10% y 9% respectivamente).

Nazioarteko bisitariek gogobetetasun handiagoa adierazi dute egindako jarduerekin (% 38) merkatu nazionaletatik etorritakoek baino (% 22).

Las y los asistentes internacionales manifiestan una mayor satisfacción con las actividades realizas (38%) que los provenientes de mercados nacionales (22%).

*14S. grafikoa. Euskadiko aisia-jarduerei buruzko itxaropenak betetzeari buruzko balorazioa (erantzunen %-k "itxaropenak gainditu ditu") kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019. Oinarria: aisia-jardueraren bat egin duten turistak*
*Gráfico 14S. Valoración del cumplimiento de las expectativas sobre las actividades de ocio en Euskadi (% de respuestas "ha superado las expectativas") según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019. Base: turistas que han realizado alguna actividad de ocio*




*14O. grafikoa. Euskadiko aisia-jarduerei buruzko itxaropenak betetzeari buruzko balorazioa (erantzunen %-k "itxaropenak gainditu ditu") bisitarien bizilekuaren arabera, 2019. Oinarria: aisia-jardueraren bat egin duten turistak*
*Gráfico 14O. Valoración del cumplimiento de las expectativas sobre las actividades de ocio en Euskadi (% de respuestas "ha superado las expectativas") según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019. Base: turistas que han realizado alguna actividad de ocio*



## Aldatu egiten al dira bisitariek programatutako gizarte-programen edo aisia-jardueren garapen-jarraibideak?

## ¿Cambian las pautas de desarrollo de los programas sociales o de las actividades de ocio programadas por los y las asistentes?

2017-2016 aldiko gorakada handiaren ondoren, ehuneko hamar puntu jaitsi da jatorrian Euskadin egin ditzaketen aisia-jarduerei buruzko informazioa jaso edo bilatu duten kongresu eta biltzarretako parte-hartzaileen kopurua.

Tras el fuerte incremento detectado en 2017-2016, desciende diez puntos porcentuales el número de asistentes a congresos y convenciones que en su lugar de origen han recibido o buscado información acerca de las actividades de ocio que podía realizar en Euskadi.

*GE.14 grafikoa. Jaso edo bilatu al du bere jatorrian Euskadin egin ditzakeen aisia-jarduerei buruzko informaziorik? (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*
*Gráfico GE.14 ¿Ha recibido o buscado en su lugar de origen información acerca de las actividades de ocio que podría realizar en Euskadi? (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*




Denboran zehar mantendu egiten da parte-hartzaileek egiten duten informazioaren bilaketa aktiboa (% 38, 2017-2016 aldiko % 28ren aurrean), batez ere ordezkarien aldetik; bestalde, nabarmen murriztu dira kongresuen enpresa antolatzaileek jarduerak proposatzeko orduan egindako esku-hartzeak.

Se mantiene el incremento continuado en el tiempo de la búsqueda activa de información por parte de las y los asistentes (38% frente al 28% en 2017-2016), sobre todo por cuenta de las y los delegados; mientras que disminuye notablemente la intervención de las empresas organizadoras de congresos en la propuesta de actividades.

*GE.15 grafikoa. Zer bidetatik jaso edo bilatu du informazio hori? (2019, 2017-2016, 2014) Oinarria: aisia-jarduerei buruzko informazioa jatorrian jaso duten parte-hartzaileak*
*Gráfico GE.15 ¿A través de qué canal recibió o buscó esa información? (2019, 2017-2016, 2014) Base: asistentes que han recibido información de ocio en origen*



Jatorrian aldez aurretiko informaziorik jaso ez duten parte-hartzaileen artean, % 65k dio gustatuko iitzaiokeela jasotzea. Kopuruak gora egin du 2017-2016 aldikoarekiko (% 61) eta hurbildu egin da 2012an jasotakora (% 66).

Entre las y los asistentes que no han recibido información previa en su lugar de origen, el 65% afirma que sí le hubiera gustado recibirla. Esta cifra aumenta ligeramente respecto a 2017-2016 (61%) acercándose más a la recogida en 2012 (66%).

*GE.16 grafikoa. Gustatuko al litzaizukeen jasotzea? (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Oinarria: jatorrian aisia-informaziorik jaso ez duten parte-hartzaileak*

*Gráfico GE.16 ¿Le hubiera gustado recibirla? (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Base: asistentes que no han recibido información de ocio en origen*




Kongresu eta biltzarretara etorritako turistek Euskadin egin ditzaketen aisia-jarduerei buruz informatzeko bilaketa-kanal desberdinak erabiltzen dituzte.
Internetek beherakada handia jasan du informazio-iturri gisa, orain parte-hartzaileen % 47k erabili baitu 2017-2016 aldian erabili zuen % 84ren aurrean. Edizio honetan gida eta liburuxkek izan duten pisua nabarmendu behar da (% 48, 2017-2016 aldian izandako % 14ren aurrean), bai eta inguruko pertsonek emandako informazioarena ere (% 59, 2017-2016 aldiko % 26ren aurrean). Turismo-arloko profesionalengandik jasotako informazioak lehengo mailan jarraitu du eta asko jaitsi da artikulu, erreportaje eta/edo publizitate bidez jasotako informazioa.

Las y los turistas asistentes a congresos y convenciones utilizan diferentes canales de búsqueda para informarse sobre las actividades de ocio que podrían realizar en Euskadi.
Internet sufre un acusado descenso siendo utilizado como fuente de información por el 47% de las y los asistentes respecto al 84% que lo utilizaba en 2017-2016. En esta edición hay que subrayar el peso alcanzado por las guías y folletos (48% frente al 14% registrado en 2017-2016) y por la información facilitada por las personas cercanas (59% frente al 26% de 2017-2016). Se mantiene el peso de la información recibida por profesionales del turismo y cae bruscamente la información recabada a través de artículos, reportajes y/o publicidad.

*GE.17 grafikoa. Erabilitako informazio-iturriak (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Erantzun anizkoitza. Oinarria: aisiari buruzko informazioa beren kasa bilatu duten parte-hartzaileak*

*Gráfico GE.17 Fuentes de información utilizadas (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Respuesta múltiple. Base: asistentes que han buscado por su cuenta información de ocio*



Euskadiko kongresu eta biltzarretara etorri diren eta egonaldian zehar egin daitezkeen aisia-jarduerei buruzko aldez aurretiko informazioa jaso duten parte-hartzaileen kopuruak behera egitearekin batera, murriztu egin da jarduera horiek egiten dituzten parte-hartzaileen kopurua ere (azken boladako % 73, 2017-2016 aldiko % 83ren aurrean). Jarduerak ez egiteko arrazoi nagusia denbora-falta izan da, orain arte bezala.

A la vez que desciende el número de asistentes a congresos y convenciones que ha recibido información previa sobre las actividades de ocio que se pueden realizar en Euskadi durante su estancia, disminuye el número de participantes que las realiza (73% de la oleada actual frente al 83% de 2017-2016). La falta de tiempo sigue siendo la razón mayoritaria para no practicarlas.

*GE.18 grafikoa. Egin al duzu aisia-jarduerarik egonaldian zehar? (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*
*Gráfico GE.18 ¿Ha realizado alguna actividad de ocio durante su estancia? (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*




*GE.19 grafikoa. Zergatik? (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Oinarria: aisia-jarduerarik egin ez duten parte-hartzaileak*
*Gráfico GE.19 ¿Por qué motivo? (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Base: asistentes que no han realizado actividades de ocio*




Kongresuen enpresa antolatzaileek aisia-jardueren proposamenean izan duten partaidetzak nabarmen egin du behera batez ere antolaketa propioa enpresek egindakoarekin partekatzen dutenen artean (% 15, 2017-2016 aldiko % 47rekin konparatuta). Jarduera-proposamenaren beherakada hori antolatzaileek kongresu eta biltzarretan parte hartzen dutenei jarduerei buruz aldez aurretik ematen dieten informazioaren beherakadari lotuta dago.

La participación de las empresas organizadoras de congresos en la propuesta de actividades de ocio ha caído considerablemente sobre todo entre quienes comparten su propia organización con la llevada a cabo por las empresas (15% con respecto al 47% de 2017-2016). Esta caída en la propuesta de actividades va ligada al descenso observado en la información sobre actividades que facilitan las organizaciones a las y los asistentes a congresos y convenciones, previamente a su visita.

*GE.20 Nork proposatu ditu? (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Oinarria: aisia-jarduerak egin dituzten parte-hartzaileak*
*GE.20 ¿Por quién han sido propuestas? (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Base: asistentes que han realizado actividades de ocio*



2017-2016 aldiarekin konparatuta, gastronomiak eta hiriko turismoak lehen tokian jarraitu dute Euskadiko kongresu/biltzarretara etorri direnek egindako aisia-jardueren artean. Behera egin du turismo kulturalarekin zerikusia duten jardueren ehunekoak, eta nabarmentzekoa da kostaldeko turismo-jarduerek eta beste jarduera batzuek, batik bat erosketekin zerikusia dutenek, izandako gorakada.

Respecto a 2017-2016, se mantienen la gastronomía y el turismo en la ciudad como actividades de ocio líderes entre las y los asistentes a congresos/convenciones en Euskadi. Disminuye el peso porcentual de las actividades relacionadas con el turismo cultural y destaca el incremento de actividades de turismo costero y de otras actividades, estas últimas relacionadas principalmente con las compras.

*GE.21 Egindako jarduerak (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Oinarria: aisia-jarduerak egin dituzten parte-hartzaileak*
*GE.21 Actividades realizadas (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Base: asistentes que han realizado actividades de ocio*




Euskadin egin zitzaketen aisia-jarduerei buruz parte-hartzaileek zituzten itxaropenak gainditu egin dituztela esaten zutenen kopuruak gorakako joera izan du azken urteetan, baina joera hori eten egin da 2017-2016 aldiarekiko ehuneko 10 puntu jaitsita.

Se rompe la tendencia observada en los últimos años en cuanto al número de participantes que afirma que Euskadi ha superado las expectativas que tenían acerca de las actividades ocio que podían realizar en el territorio disminuyendo en diez puntos porcentuales respecto a 2017-2016.

*GE.22 grafikoa. Euskadik bete al ditu aisia-jarduerei buruz zenituen itxaropenak? (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Oinarria: aisia-jarduerak egin dituzten parte-hartzaileak*
*Gráfico GE.22 ¿Euskadi ha cubierto las expectativas que tenía acerca de las actividades de ocio? (2019, 2017-2016, 2014, 2012) Base: asistentes que han realizado actividades de ocio*



## 3.- EUSKADIREN BALORAZIOARI BURUZKO ADIERAZLE TURISTIKOAK

### 3.1.- Nola baloratzen dute kongresua eta/edo biltzarra egin den hiria?

Euskadiko kongresu/biltzarretara etorritakoek 1etik (gutxiena) 5erako (gehiena) eskalan balorazio onena eman dioten hiria Donostia da (4,9); Bilbok jarraitzen dio (4,8), eta azkenik Gasteiz dago (4,5). Hirien balorazio globaletan ez dago ia alderik parte-hartzaileen jatorriari erreparatuta (4,8 puntu estatuko merkatuetakoek eta 4,9 puntu nazioarteko parte-hartzaileek).

Gasteizen eta Donostian egindako kongresu/biltzarretara etorritakoen artean, balorazio onena jaso duten hiriko alderdiak herritarren segurtasuna eta udalerriko garbitasuna dira. Bilboko ekitaldietan parte hartu dutenek ere oso modu positiboan baloratu dute hiriko garbitasuna eta herritarren izaera eta adeitasuna nabarmendu dituzte.

Gehienezko balorazioa 5 puntukoa izanik, Gasteizen gomendio-tasa 4,4 puntukoa izan da kongresu/biltzarretara etortzeko helmuga gisa, eta 4,5 puntukoa aisia-helmuga gisa.

Erdian geratu dira Donostiaren gomendio-tasak, 4,7 punturekin helmuga profesional gisa eta 4,8 punturekin aisia-helmuga gisa.

Bilbok lortu ditu puntuazio handienak (4,9 puntu) hiriaren gomendio-indizeetan, bai aisia-helmuga gisa eta bai ekitaldien helmuga gisa.

## 3.- INDICADORES TURÍSTICOS SOBRE LA VALORACIÓN DE EUSKADI

### 3.1.- ¿Cómo valoran la ciudad donde se ha celebrado el congreso y/o convención?

La ciudad mejor valorada, en una escala del 1 (menos) al 5 (más), por las y los asistentes a congresos/convenciones es Donostia / San Sebastián (4,9); le sigue Bilbao (4,8) y finalmente Vitoria-Gasteiz (4,5). Apenas existen diferencias en las valoraciones globales de las ciudades atendiendo al origen de las y los participantes (4,8 puntos los mercados estatales y 4,9 puntos las y los asistentes internacionales).

Entre quienes acuden a congresos/convenciones celebrados en Vitoria-Gasteiz y Donostia /San Sebastián, los aspectos mejor valorados de la ciudad son la seguridad ciudadana y la limpieza del municipio. Las y los asistentes a eventos en Bilbao evalúan de forma muy positiva también la limpieza de la ciudad y destacan el carácter y la amabilidad de la ciudadanía.

Sobre 5 puntos de valoración máxima, la tasa de recomendación de Vitoria-Gasteiz como destino para asistir a congresos/convenciones es de 4,4 puntos y la tasa de recomendación de la ciudad como destino de ocio de 4,5 puntos.

En un punto intermedio se sitúan las tasas de recomendación de Donostia / San Sebastián, 4,7 puntos como destino profesional y 4,8 de tasa de recomendación a personas cercanas como destino de ocio.

Bilbao por su parte, obtiene las máximas puntuaciones (4,9 puntos) en los índices de recomendación de la ciudad, tanto como destino de ocio como para la asistencia a eventos.

*15S grafikoa. Kongresua/biltzarra egin den hiriaren alderdien balorazioa, kongresu/biltzarra egindako hiriaren arabera, 2019*

*Gráfico 15S. Valoración de aspectos relativos a la ciudad donde se ha celebrado el congreso/convención según ciudad donde se celebra, 2019*



Merkatu nazionaletatik etorritako parte-hartzaileentzat nahiz nazioartekoetatik etorritakoentzat, hirietako garbitasuna da kongresuak/biltzarrak egiten diren hirietako ongien baloratutako alderdietako bat. Ñabardura nazioarteko merkatuak hirietako arkitektura eta monumentuei buruz egiten duen balorazioak dakar, herritarren izaerari eta adeitasunari buruzko balorazio positiboaren gainetik baitago.

Tanto para las y los asistentes provenientes de mercados nacionales como para las y los internacionales, la limpieza de las ciudades es uno de los aspectos mejor valorados de las localidades donde se celebran los congresos/convenciones. El matiz lo aporta la valoración, por parte del mercado internacional, de la arquitectura y monumentos de las ciudades que supera ligeramente al reconocimiento positivo del carácter y amabilidad de la ciudadanía.

*15O grafikoa. Kongresuak/biltzarrak egin diren hiriei buruzko alderdien balorazioa, parte-hartzaileen bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 15O. Valoración de aspectos relativos a las ciudades donde se han celebrado los congresos/convenciones según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019*



## 3.2.- Itzuliko al lirateke Euskadira aisia-arrazoiengatik?

### Fidelizazio-tasa eta berritze-tasa

Aurretik ere etorri ziren eta Euskadira kongresu/biltzarretara berriro etorri direnek duten pisua adierazten du fidelizazio-tasak, eta % 57 da batez beste. Honako hauek dira kopuruak hirien arabera: % 44 Gasteizko ekitaldietara etortzen direnen artean, % 54 Bilbora etortzen direnen artean eta ia % 71 Donostiara etortzen direnen artean.

Euskadira lehen egindako bisita gehienak aisia-arrazoiengatik egindakoak izan ziren (% 63); gainerako % 37 kontu profesionalek eragindakoak. Ehuneko horiek antzekoak dira ekitaldiak egiten diren hiru hirietan.

Estatuko ordezkariek fidelizazio-tasa handiagoak dituzte (% 64) nazioarteko merkatuetakoek baino (% 31). Halaber, lehenengoek Euskadira egindako desplazamendu gehienak aisiakoak ziren (% 65); bigarrenen artean arrazoi profesionalak ziren nagusi (% 54).

## 3.2.- ¿Volverían a Euskadi por motivaciones de ocio?

### Tasa de fidelización y de renovación

Entendiendo por tasa de fidelización el peso de las y los asistentes a congresos/convenciones que ya han estado en Euskadi con anterioridad, esta alcanza el 57%. Las cifras oscilan entre el 44% de las y los asistentes a eventos en Vitoria-Gasteiz, el 54% de quienes acuden a Bilbao y llega casi al 71% de las y los participantes en Donostia / San Sebastián.

Principalmente, las visitas anteriores a Euskadi se habían realizado por motivaciones de ocio (63%); frente al 37% restante, motivadas por asuntos profesionales. Esta circunstancia tiene lugar en similares términos entre las y los asistentes de las tres ciudades donde se celebran los eventos.

Las y los delegados estatales tienen una mayor tasa de fidelización (64%) que los mercados internacionales (31%). Del mismo modo, mientras que los desplazamientos anteriores a Euskadi entre los primeros eran principalmente de ocio (65%); entre los segundos primaban los motivos profesionales (54%).

*16S grafikoa. Fidelizazio-tasa, Euskadira berriro etortzen diren turisten ehunekoa, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 16S. Tasa de fidelización, porcentaje de turistas que repiten su visita a Euskadi, según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*




*16O grafikoa. Fidelizazio-tasa, Euskadira berriro etortzen diren turisten ehunekoa, parte-hartzaileen bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 16O. Tasa de fidelización, porcentaje de turistas que repiten su visita a Euskadi, según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019*



## Gomendio-tasa eta Euskadira itzultzeko asmoa

**Gomendio-tasak** kongresu/biltzarretara etorritakoek Euskadi aisia-helmuga gisa zenbateraino sustatuko duten neurtzen du. Puntuazio handienarekin (5) gomendatuko luketela diotenak jotzen dira sustatzailetzat.

Batez beste, Euskadin tasa hori % 87koa da, baina inpaktu desberdina du ekitaldia egiten den hiriaren arabera. Hala, Gasteizko ekitaldietara joaten direnen artean, gomendio-tasa % 61ekoa da. Donostian parte hartzen duten ordezkarien artean, tasa hori 20 puntu handiagoa da (% 84). Eta % 92ra iristen da Bilbora joaten direnen artean.

Nazioarteko parte-hartzaileen artean, gomendio-tasa merkatu nazionaletatik etortzen direnen artean baino ehuneko 10 puntu handiagoa da.

## Tasa de recomendación e intención de volver a Euskadi

La **tasa de recomendación** mide el grado en que las y los asistentes a congresos/convenciones pueden convertirse en promotores de Euskadi como destino de ocio, considerando como tales a quienes afirman que lo recomendarían con la máxima puntuación (5).

Por término medio, en Euskadi esta tasa se sitúa en el 87% aunque con diferente impacto según las ciudades donde se celebran los eventos. Así, entre quienes acuden a actos en Vitoria-Gasteiz, la tasa de recomendación es del 61%. Entre las y los delegados participantes en Donostia / San Sebastián esta tasa es más de 20 puntos superior (84%). Y alcanza el 92% entre quienes se desplazan a Bilbao.

La tasa de recomendación entre las y los asistentes internacionales supera en 10 puntos porcentuales al porcentaje de quienes proceden de mercados nacionales.

*17S grafikoa. Gomendio-tasa, familiakoei eta lagunei Euskadi aisia-helmuga gisa ziurtasun osoz gomendatuko lieketen turisten ehunekoa, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 17S. Tasa de recomendación, porcentaje de turistas que con seguridad recomendarán Euskadi a familiares y amistades como destino de ocio, según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*




*17O grafikoa. Gomendio-tasa, familiakoei eta lagunei Euskadi aisia-helmuga gisa ziurtasun osoz gomendatuko lieketen turisten ehunekoa, parte-hartzaileen bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 17O. Tasa de recomendación, porcentaje de turistas que con seguridad recomendarán Euskadi a familiares y amistades como destino de ocio, según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019*




**Atxikitze-tasak** turistek, epe jakin batean, helmugarekin duten fideltasuna neurtzen du. Hau da, zenbat turistak esaten duten ziurtasun osoz hurrengo 12 hilabeteetan aisia-arrazoiengatik Euskadira itzultzeko prest daudela.

Euskadiko batez besteko atxikitze-tasa % 26koa da.

Baina kongresu/biltzarren hirien portaerak adieraztea komeni den ñabardurak ditu. Hala, tasa handiena (% 54) Donostiakoa da eta bigarren handiena Gasteizkoa (% 41). Bilboko bisitarien artean % 13k bakarrik esaten du ziurtasun osoz itzuliko litzatekeela hurrengo urtean. Bilbok hain ehuneko txikia izatearen arrazoia nazioarteko bisitari gehiago hartzea izan daiteke. Nazioarteko merkatuetatik etorritako % 9 bakarrik itzuliko da Euskadira aisia-arrazoiengatik hurrengo 12 hilabeteetan ziurtasun osoz, eta estatuko parte-hartzaileen % 31.

La **tasa de retención** mide la fidelidad de las y los turistas con el destino en un plazo concreto. Es decir, cuántos turistas afirman con seguridad que estarían dispuestos a volver a Euskadi en los próximos 12 meses por motivos de ocio.

Como promedio la tasa de retención en Euskadi se ubica en el 26%.

Ahora bien, el comportamiento de las ciudades donde se celebran los congresos/convenciones muestra ciertos matices que conviene señalar. Así, la tasa más elevada (54%) se sitúa en Donostia / San Sebastián, seguida por Vitoria-Gasteiz (41%). Bilbao cuenta con tan solo un 13% de asistentes que con seguridad volverán en el próximo año. Esta cifra tan baja alcanzada en esta localidad bien puede estar justificada por el mayor número de asistentes internacionales que acoge, ya que solo el 9% de las y los provenientes de mercados internaciones volverá con seguridad a Euskadi por motivos de ocio en los próximos 12 meses, frente al 31% de las y los asistentes estatales.

*180 grafikoa. Atxikitze-tasa, hurrengo 12 hilbeteetan aisia-arrazoiengatik Euskadira itzultzeko asmoa dutela esaten duten parte-hartzaileen ehunekoa, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 18S. Tasa de retención, porcentaje de asistentes que afirman con seguridad que tienen intención de volver a Euskadi por motivaciones de ocio en los próximos 12 meses, según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*




*18O grafikoa. Atxikitze-tasa, hurrengo 12 hilbeteetan aisia-arrazoiengatik Euskadira itzultzeko asmoa dutela esaten duten parte-hartzaileen ehunekoa, parte-hartzaileen bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 18O. Tasa de retención, porcentaje de asistentes que afirman con seguridad que tienen intención de volver a Euskadi por motivaciones de ocio en los próximos 12 meses, según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019*



## 3.3.- Zein dira hurrengo aisia-bisitaren jarduera eragileak?

Hurrengo 12 hilabeteetan aisia-arrazoiengatik Euskadira itzultzeko aukera dagoela esaten dutenen artean, etorkizuneko bisita horretarako aurreikusitako egun-kopurua 4 egunekoa da.

Bai Bilbon eta bai Donostian, jarduera eragile nagusia gastronomia da. Garrantziaren arabera, turismo kulturalarekin lotutakoak (lehenengoan) eta hiriko turismoarekin (bigarrenean) lotutakoak dira ondorengoak. Kongresu/biltzarretara Gasteizera etortzen direnenentzako alderdirik erakargarrienak ibilbide turistikoak egitea eta gastronomia dira.

Bisitariak Euskadira itzultzera bultzatu dituzten jarduerak edo bisitak aztertzeko orduan, kontuan izan behar da honako premisa hau: Gasteizko ekitaldietara etorri direnek 3 jarduera eragile soilik aipatu dituzte, eta Donostiara eta Bilbora etorri direnek, aldiz, 6 eta 7 aipatu dituzte, hurrenez hurren. Horregatik dago bi hiri horien presentzia handiagoa ordezkariak dituzten jarduera guztietan.

## 3.3.- ¿Cuáles son las actividades tractoras de la próxima visita de ocio?

Entre quienes afirman la posibilidad de volver a Euskadi por motivaciones ocio en los próximos 12 meses, el número de días previstos para esa futura visita es de 4 días.

La actividad tractora por excelencia, tanto en Bilbao como en Donostia / San Sebastián, es la gastronomía. Le siguen en importancia las actividades relacionadas con el turismo cultural (en la primera) y con el turismo en la ciudad (en la segunda). Entre los mayores atractivos de quienes acuden a congresos/convenciones en Vitoria-Gasteiz están la realización de rutas turísticas y la gastronomía.

A la hora de analizar las actividades o visitas que han motivado a las y los asistentes para volver a viajar a Euskadi hay que tener en cuenta la siguiente premisa: en el caso de quienes acuden a eventos a Vitoria-Gasteiz solo han declarado 3 actividades tractoras de la próxima visita frente a las 6 y 7 mencionadas por quienes se desplazan a Donostia / San Sebastián y Bilbao, respectivamente. De ahí que haya una mayor presencia de estas ciudades en todas las actividades representadas.

*19S.grafikoa. Berriro Euskadira etortzera bultzatu duten jarduerak edo bisitak, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*

*Gráfico 19S.Actividades o visitas que le han motivado para volver a viajar a Euskadi, según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*



Gastronomia eta hiriko turismoa dira Euskadira berriro etortzeko erakarpen nagusiak, bai bisitari nazionalentzat eta bai nazioarteko merkatuetatik etorritakoentzat. Bi taldeek 6-7 jarduera eragile aipatu dituzte hurrengo bisitarako.

La gastronomía y el turismo de ciudad son los principales alicientes para volver a Euskadi tanto para las y los asistentes nacionales como para quienes proceden de mercados internacionales. Ambos colectivos declaran entre 6-7 actividades tractoras de la próxima visita respectivamente.

*19O.grafikoa. Berriro Euskadira etortzera bultzatu duten jarduerak edo bisitak, bisitarien bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 19O.Actividades o visitas que le han motivado para volver a viajar a Euskadi, según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019*




## Ba al dago aldaketarik hirien balorazioetan? Aldatu egin al dira aisiagatiko hurrengo bisitaren jarduera eragileak?

1etik (gutxienekoa) 10era (gehienekoa) bitarteko eskalan, kongresuak/biltzarrak egiten diren hirien batez besteko balorazioa 9,6 puntukoa da, orain arte lortutako puntuaziorik handiena, aurreko aldikoa (2017-2016) 9 hamarrenetan gaindituz.

Kontuan hartzen badugu, lehenik eta behin, aztertutako alderdi guztiek 8 puntutik gora lortu dituztela, edizio honetan (aurrekoarekin konparatuta) balorazioa handitu duten hirien inguruko alderdiak eskaintza kulturalarekin eta eskaintza arkitektoniko edo monumentalarekin zerikusia dutenak dira. Azpiegiturekin zerikusia duten balorazioak jaitsi egin dira: sarbideak eta komunikazioak, garraio publikoak eta seinaleak eta informazioa. Halaber, herritarren segurtasunari buruzko pertzepzioa ere pixka bat jaitsi da.

## ¿Se detectan cambios en las valoraciones de las ciudades? ¿se transforman las actividades tractoras de la próxima visita por ocio?

En una escala del 1 (menos) al 10 (más), el promedio de valoración de las ciudades donde se celebran los congresos/convenciones alcanza 9,6 puntos, la cifra mayor alcanzada hasta ahora, superando en 9 décimas la de la experiencia anterior (2017-2016).

Teniendo en cuenta, en primer lugar, que todos los aspectos analizados superan los 8 puntos, las cuestiones relativas a las ciudades que más han aumentado su valoración en esta edición (respecto a la previa) son los relacionados con la oferta cultural y la oferta arquitectónica o monumental. Desciende las valoraciones relacionadas con las infraestructuras como son: los accesos y comunicaciones, transportes públicos y señalización e información. A la vez que baja ligeramente la percepción sobre la seguridad ciudadana.

*GE.23 grafikoa. Kongresu/biltzarren hiriari buruzko alderdien balorazioa 1etik (gutxienekoa) 10era (gehienekoa) bitarteko eskalan (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*
*Gráfico GE.23 Valoración de aspectos relativos a la ciudad donde se celebra el congreso/convención en una escala de 1 (menos) a 10 (más) (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*




Hiriaren eta Euskadiren gomendio-mailaren eboluzioaren azterketa errazteko, hainbat multzotan sailkatu dira bisitarien erantzunak. Hala, 1etik (gutxienekoa) 5era (gehienekoa) bitarteko eskalan, gehieneko balorazioa (5) ematen dutenak *sustatzailetzat* jotzen dira. 1etik 3ra bitartean (biak barne) kokatzen direnak *aurkaritzat* jotzen dira. Eta 4ko balorazioa ematen dutenak *pasibotzat* jotzen dira. Gomendio-indize garbia *sustatzaileak* ken *aurkariak* eragiketaren ondoriozko emaitza da.

2017-2016 aldiarekin konparatuta, gora egin dute aztertutako alderdi bakoitzerako lortutako gomendio-indizeek. Hiria ekitaldi-helmuga gisa gomendatu dutenen indizea % 73tik % 81era igo da. Hiria aisia-helmuga gisa gomendatzen zutenen indizea % 74 zen lehen, eta orain % 85 da. Euskadiren aisia-helmuga gisako indizea % 78 zen lehen, eta % 85 da orain. Dena den, igoera orokorra izan den arren, gomendio-indizean 2014an lortutakoak baino beherago daude oraindik.

Para facilitar el análisis de la evolución del nivel de recomendación de la ciudad y de Euskadi se han categorizado las respuestas de las y los asistentes en diferentes grupos. Así, en una escala del 1 (menos) al 5 (más), quienes valoran con el máximo (5) se consideran *promotores*. Quienes se sitúan entre 1 a 3 (ambos incluidos) se consideran *detractores*. Y el grupo de *pasivos/as* quienes opten por el valor 4. El índice de recomendación neta es el saldo resultante de restar *promotores* menos *detractores*.

Aumentan, respecto a 2017-2016, los índices de recomendación alcanzados por cada uno de los aspectos analizados. La ciudad como destino de eventos ha ascendido del 73% al 81%. La ciudad como destino de ocio, que contaba con un índice de recomendación del 74%, presenta actualmente un 85%. Y Euskadi como destino de ocio, que llegaba al 78%, es ahora del 85%. No obstante, a pesar del ascenso general experimentado, los índices de recomendación se sitúan todavía algo por debajo de los alcanzados en 2014.

*GE.24 grafikoa. Hiria eta Euskadi helmugatzat jotzeko sustatzaileak eta aurkariak (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*
*Gráfico GE.24 Promotores y detractores de la ciudad y Euskadi como destino (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*




Bisitariek aisia-arrazoiengatik Euskadira itzultzeko duten asmoari buruzko emaitzen interpretazioa hobetzeko, erantzunen kategorizazio berri bat ezarri da.

Para mejorar la interpretación de los resultados sobre la intención de las y los asistentes de volver a Euskadi por ocio, se ha establecido una nueva categorización de las respuestas.

Hala *erakartzeko lehen mailako publikotzat* joko da ziurtasun osoz itzuliko direla esaten dutenak. *Erakartzeko bigarren mailako publikoa* seguruenik itzuliko direla bai baina ziurtasun osoz esaten ez dutenek osatzen dute. Eta azkenik, *ez erakartzeko moduko publikotzat* jotzen dira ez direla itzuliko ziurtasun osoz esaten dutenak, zalantzan jartzen dutenak eta seguruenik ez direla itzuliko esaten dutenak.

Así, se va a considerar como *público de captación primario* a quienes afirman que van a volver con total seguridad. El *público de captación secundario* queda constituido por quienes declaran que probablemente volverán, pero no lo afirman con rotundidad. Y, por último, como *público no captable*, quienes afirman con seguridad que no volverán y quienes dudan o no lo creen probable.

Emaitzen eboluzioaren konparaketan, irauli egin da kongresu/biltzarretara etortzen direnen artean aisia-arrazoiengatik Euskadira itzultzeko asmoari buruz 2012az geroztik ikusten zen eboluzio negatiboa. *Ez erakartzeko moduko publiko* gisa sailkatutakoen beherakada handia nabarmendu behar da (% 19, 2017-2016 aldiko % 48ren aurrean).

En la comparativa evolutiva de los resultados, se revierte la evolución negativa que se observaba desde 2012 sobre la intención de volver a Euskadi por ocio entre quienes asisten a congresos/convenciones, destacando el notable descenso de quienes se clasifican como *público no captable* (19% frente al 48% de 2017-2016).

*GE.25 grafikoa. Publiko-mota aisia-arrazoiengatik Euskadira itzultzeko asmoaren arabera (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*
*Gráfico GE.25 Tipo de público según la intención de volver a Euskadi por motivaciones de ocio (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*



Euskadira itzultzea pentsatuta dutenen artean, bisitaren iraupena 2014ko balioetara itzuli da (4 egun) 2017-2016 aldian erregistratutako gorakadaren ondoren (6 egun).

Entre quienes tienen pensando volver a Euskadi la duración de la visita vuelve a valores de 2014 (4 días) tras el incremento registrado en 2017-2016 (6 días).

*GE.26 grafikoa. Aisia-arrazoiengatik Euskadira egingo duen hurrengo bidaian igaroko dituen egun-kopuruari buruzko plangintza-mota (2019, 2017-2016, 2014)*
*Gráfico GE.26 Tipo de planificación sobre el número de día de su próximo viaje de ocio por Euskadi (2019, 2017-2016, 2014)*




2019an jarduera nagusi gisa kokatu dira gastronomiarekin zerikusia dutenak (% 90), eta laugarren postura atzeratu da ibilbide turistikoak egitea (2017-2016 aldian jarduera eragile nagusitzat jo zena).

Se posiciona en 2019 como actividad líder, las relacionadas con la gastronomía (90%), relegando al cuarto puesto a la realización de rutas turísticas (declarada como principal actividad tractora en 2017-2016).

*GE.27 grafikoa. Etorkizunean aisia-arrazoiengatik Euskadira etortzea bultzatzen duten jarduerak (2019, 2017-2016, 2014) Erantzun anizkoitza*
*Gráfico GE.27 Actividades que motivan la futura visita a Euskadi por ocio (2019, 2017-2016, 2014) Respuesta múltiple*



## 4.- EGITEN DUTEN GASTUA

### 4.1.- Gastu osoa eta eragin ekonomikoa

Eragin ekonomikoa, hau da, bisitariek beren bizilekuan nahiz Euskadin egindako bidaia-gastu osoa, aldatu egiten da kongresu/biltzarraren hiriaren arabera: Gasteizko ekitaldietara etortzen diren turistek gastatzen dituzten 7 milioi euroetatik hasi, Donostiako ekitaldietara etortzen direnen 27 milioi euroekin jarraitu eta Bilbon egiten diren kongresuetan parte hartzen dutenek gastatzen dituzten ia 70 milioi euroetara iritsiz.

Pertsonako gastu osoak, bizi diren lekuan nahiz Euskadin egindako gastuak barne hartuta, 883 €ko batez bestekoa du. Zenbatekoa Gasteizera etortzen direnek gastatzen dituzten 590 € eta Bilbo eta Donostiara etortzen direnek, hurrenez hurren, gastatzen dituzten 922 € eta 915 € artekoa da. Gastu horren % 46, gutxi gorabehera, jatorrian egiten dute (eta gainerako % 54, ondorioz, Euskadin).

Gastu-partida garrantzitsuenak honako hauek osatzen dituzte: kongresu/biltzarrerako **izen-ematea** (Gasteizko 177 €, Bilboko 208 € eta Donostiako 367 € artean), **garraio-gastua** (pertsonako 176 €-ko batez besteko gastuarekin) eta **ostatu-gastua** (egonaldiko egun bakoitzeko 107 € Gasteizen, 108 € Bilbon eta 147 € Donostian).

## 4.- EL GASTO QUE REALIZAN

### 4.1.- Gasto total e impacto económico

El impacto económico, entendiendo como tal el gasto total que realizan, para el viaje, las y los asistentes tanto en su lugar de residencia como en Euskadi, varía en función de la ciudad donde se celebra el congreso/convención: desde los 7 millones de euros de las y los turistas que asisten a eventos en Vitoria-Gasteiz a los 27 millones de euros de quienes acuden a actos en Donostia / San Sebastián y los casi 70 millones de euros de las y los participantes en congresos celebrados en Bilbao.

El gasto total por persona, incluyendo tanto los gastos realizados en su lugar de residencia como los efectuados en Euskadi, alcanza los 883€ de media. Cantidad que oscila entre los 590€ de quienes acuden a Vitoria-Gasteiz y los 922€ y 915€ de las y los asistentes a congresos/convenciones en Bilbao y Donostia / San Sebastián, respectivamente. Aproximadamente el 46% de ese gasto lo realizan en sus lugares de origen (el 54% restante, por tanto, en Euskadi).

Las partidas de gasto más importantes están compuestas por: la **inscripción** al congreso/convención (que supone entre 177€ en Vitoria-Gasteiz, 208€ en Bilbao y 367€ en Donostia / San Sebastián), el **gasto en transporte** (con un gasto promedio por persona de 176€) y el **gasto en alojamiento** (que por día de estancia asciende a 107€ en Vitoria-Gasteiz, 108 en Bilbao y 147€ en Donostia / San Sebastián).

*20S grafikoa. Kongresua/biltzarra egiteak berekin dituen gastuak, egiten den hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 20S. Gastos inherentes a la celebración del congreso/convención, según ciudad donde se celebra, 2019*




Bisitarien jatorriaren arabera, pertsonako batez besteko gastua 818 € (estatuko jatorria dutenen artean) eta 1.119 € (nazioarteko jatorria dutenen artean) artekoa da. Eta, jakina, ez dago alde handirik bi merkatuen artean kongresuan izena emateari dagokionez eta egonaldiko egun bakoitzeko ostatuaren aurrekontuari dagokionez. Garraio-gastuetan, ordea, alde handia dago nazioarteko bisitariek ordaindu beharreko zenbatekoan beren bizilekutik distantzia handiagoa dutelako eta, ondorioz, gastu handiagoari aurre egin behar diotelako. Hala eta guztiz ere, merkatu nazionaletatik etortzen diren bisitariek aurrekontuaren ia % 48 beren jatorrian ordaintzen dute eta nazioarteko merkatuetatik etortzen direnek % 40 bakarrik ordaintzen dute jatorrian.

Según la procedencia de las y los asistentes el gasto medio total por persona se sitúa entre 818€ (entre las personas de procedencia estatal) y 1.119€ (si son de procedencia internacional). Como no podría ser de otra forma, apenas existen diferencias significativas entre ambos mercados en lo que a los gastos de inscripción al congreso y el prepuesto del alojamiento por día de estancia se refiere. Sin embargo, los gastos de transporte si marcan una considerable diferencia para las y los asistentes internacionales que deben recorrer mayores distancias desde sus lugares de residencia y, por tanto, asumir un coste mayor. Esta circunstancia no es óbice para que, mientras que las y los asistentes de mercados nacionales satisfacen casi el 48% de su prepuesto en sus lugares de origen, quienes provienen de mercados internacionales abonen apenas un 40%.

*20O grafikoa. Kongresua/biltzarra egiteak berekin dituen gastuak, bisitarien bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 20O. Gastos inherentes a la celebración del congreso/convención, según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019*



## 4.2.- Euskadin egindako gastua

Aurreko atalean aztertutako bidaiako gastu osoak, lehen adierazi den bezala, kongresu/biltzarrerako izen-emateari dagozkion gastuak eta garraio-gastuak hartzen ditu, normalean bisitarien bizilekuan ordaintzen direnak. Beraz, baliteke zenbateko batzuek datuen konparagarritasuna distortsionatzea, nazioarteko turisten kasuan gertatzen den bezala, Euskadira iristeko distantziarekin eta, ondorioz, garraioan ordaindutako zenbatekoarekin duten lotura kontuan hartuta.

Analisi hori errazteko, Euskadin ordaindutako pertsonako gastuak eta pertsona eta eguneko gastuak agerian jartzea proposatzen da.

Euskadin ordaintzen den pertsonako aurrekontu handiena Bilboko ekitaldietara etortzen direnek dute (508 €); inbertsiorik txikiena, aldiz, Gasteizera etorritako turistek egiten dute (328 €). Zenbateko horiek, ordea, ez dira geratzen egonaldiaren iraupenak pertsona bakoitzak Euskadin egindako gastu osoan eragin dezakeen tartetik kanpo. Euskadin pertsona eta eguneko egiten den gastuaren analisiak, ostatu-gastuak barne hartuta, leundu egiten du gorabehera hori eta honako gastu hauek eskaintzen ditu, beheranzko ordenan, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera: Donostia (181 €), Bilbo (174 €) eta Gasteiz (123 €).

## 4.2.- Gasto realizado en Euskadi

El gasto total del viaje analizado en el capítulo anterior incluye, como se ha señalado, gastos de inscripción en los congresos/convenciones y gastos de transporte, abonados normalmente en el lugar de residencia de las y los asistentes. Es posible por tanto que algunos importes puedan distorsionar la comparabilidad de los datos, como sucede en el caso de las y los turistas internacionales con la distancia recorrida hasta llegar a Euskadi y su relación con el importe abonado por el transporte.

Para facilitar este análisis, se propone a continuación hacer hincapié en los gastos por persona y gastos por persona y día abonados en Euskadi.

El mayor presupuesto de gasto por persona abonado en Euskadi lo asumen quienes acuden a eventos en Bilbao (508€); mientras que la menor inversión la realizan las y los turistas desplazados a Vitoria-Gasteiz (328€). No obstante, estas cifras no están exentas de la distancia que puede provocar la influencia de la duración de la estancia en el gasto total por persona realizado en Euskadi. El análisis del gasto por persona y día en Euskadi, incluyendo los gastos de alojamiento, atempera esta circunstancia y ofrece, en orden decreciente, las siguientes cuantías de gasto en función de la ciudad donde se celebra el congreso/convención: Donostia / San Sebastián (181€), Bilbao (174€) y Vitoria-Gasteiz (123€).

*21S grafikoa. Pertsona bakoitzak Euskadin egindako batez besteko gastua, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 21S Gasto medio por persona abonado en Euskadi según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*




*22S grafikoa. Pertsona bakoitzak Euskadin eguneko egindako batez besteko gastua, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 22S Gasto medio por persona y día abonado en Euskadi según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*




Ostatuak, batez beste, Euskadiko gastuaren aurrekontuaren % 63 hartzen du. Euskadin egiten diren gainerako gastu-kontzeptu ohikoenen artean alderak ikusten dira kongresuak/biltzarrak egiten diren hirien arabera. Ohikoa da Gasteizko eta Bilboko ekitaldietara etortzen direnen artean gastuak egitea programatutako aisia-jardueretan eta museo edo erakusketetarako sarreretan; Donostiara etortzen direnek, aldiz, gastronomiarekin zerikusia duten jardueretan egiten dute gasturik handiena.

Por término medio, el alojamiento supone el 63% del presupuesto de gasto en Euskadi. Del resto de los conceptos de gasto más frecuentes realizados en Euskadi, se observan variaciones según las ciudades donde se celebran los congresos/convenciones. Es habitual entre quienes acuden a eventos en Vitoria-Gasteiz y Bilbao realizar gastos en actividades programadas de ocio y en entradas a museos o exposiciones; mientras que entre quienes visitan Donostia / San Sebastián, el mayor peso de la inversión lo destinan a actividades relacionadas con la gastronomía.

*23S grafikoa. Euskadin egindako gastu osagarrien kontzeptuen banaketa, kongresu/biltzarraren hiriaren arabera, 2019*
*Gráfico 23S. Distribución de los conceptos de gastos complementarios realizados en Euskadi según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2019*




Merkatu nazionaletatik etorritako bisitariek Euskadin egindako pertsonako batez besteko gastua 429 €koa da eta nazioarteko merkatuetatik etorritakoek egindakoa 667 €koa. Baina pertsona bakoitzak egonaldiko egun bakoitzeko Euskadin egindako gastuaren analisiak ehuneko -5 puntuko aldea bakarrik adierazten du bisitari nazionalen eta nazioartekoen aurrekontuen artean.

El gasto medio por persona realizado en Euskadi por las y los asistentes procedentes de mercados nacionales asciende a 429€ frente a los 667€ de quienes provienes del mercado internacional. Sin embargo, el análisis del gasto por persona y día de estancia efectuado en Euskadi, incluyendo los gastos de alojamiento, apenas marca una diferencia de -5 puntos porcentuales, entre el presupuesto destinado por las y los asistentes nacionales frente a los internacionales.

*21O grafikoa. Euskadin pertsona bakoitzak egindako batez besteko gastua, bisitarien bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 21O Gasto medio por persona abonado en Euskadi según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019*




*22O grafikoa. Euskadin pertsona bakoitzak eguneko egindako batez besteko gastua, bisitarien bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 22O Gasto medio por persona y día abonado en Euskadi según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019*




Merkatu nazionaletik etorritako bisitariek eta are gehiago nazioarteko merkatutik etorritakoek, gastronomiarekin zerikusia duten jardueretako gastu osagarrietara bideratzen dute aurrekontuaren zatirik handiena, ostatu-gastuak kontuan izan gabe.

Tanto las y los asistentes del mercado nacional como en mayor medida quienes proceden del internacional destinan la mayor parte de su presupuesto en Euskadi, sin tener en cuenta los gastos del alojamiento, para gastos complementarios en actividades relacionadas con la gastronomía.

*23O grafikoa. Euskadin egindako gastu osagarrien kontzeptuen banaketa, bisitarien bizilekuaren arabera, 2019*
*Gráfico 23O. Distribución de los conceptos de gastos complementarios realizados en Euskadi según lugar de residencia de las y los asistentes, 2019*




## Parte-hartzaileen aurrekontuaren eboluzioa

Euskadiko kongresu eta biltzarretara etortzen direnek egindako gastu osoa 103 milioi euro ingurukoa da, kalkuluen arabera. 2017-2016 aldian, zenbateko hori 87 milioi eurokoa zen eta 2014an 56 milioi eurokoa.

**Pertsonako batez besteko gastu osoa** 883 €koa da (2017-2016 aldian baino 164 € gutxiago), beren bizilekuan egindako gastuak eta Euskadin egonaldian zehar egindako gastuak barne hartzen dituena. 2014an, parte-hartzaile bakoitzeko batez besteko gastua 730 €koa zen.

Ondoz ondoko hiru ediziotan etengabe handitu ondoren, 2019an behera egin du kongresuetako izen-emateen batez besteko prezioak. Garraioak, bestalde, ez du ia aldaketarik izan. Pertsona eta eguneko ostatu-gastuak asko igo dira, eta 2012tik izandako kopuru handienera iritsi dira.

## Evolución del presupuesto de las y los participantes

Se estima un volumen total del gasto realizado por las y los asistentes a congresos y convenciones en Euskadi en un entorno de 103 millones de euros. En 2017-2016 esa cifra alcanzaba los 87 millones de euros y en 2014 los 56 millones de euros.

El **gasto medio total por persona** es de 883€ (164€ menos que en 2017-2016), que incluye tanto los gastos realizados en su lugar de residencia como los realizados en Euskadi durante su estancia. En 2014 el gasto medio por participante era de 730€.

Después de tres ediciones consecutivas de subidas, desciende en 2019 el precio medio de las inscripciones en los congresos. Por su parte el transporte apenas sufre variaciones. Los gastos en alojamiento por persona y día han aumentado considerablemente, alcanzando la cifra más alta desde 2012.

*GE.28 grafikoa. Bisitarien batez besteko gastua kontzeptuen arabera (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*
*Gráfico GE.28 Gasto medio de los y las asistentes por conceptos (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*



Behin **Euskadira** iritsitakoan, kongresu eta biltzarretara etortzen direnek, batez beste, 479 €ko **gastua egiten dute pertsonako,** ostatu-gastuak barne hartuta (2017-2016 aldian baino 59 € gehiago). 2014an, zenbatekoa 407 €-koa zen.

Una vez en **Euskadi**, las y los asistentes a congresos y convenciones realizan un total de **gasto por persona,** incluyendo los gastos de alojamiento, de 479€ por término medio (59€ más que en 2017-2016). En 2014 esta cifra alcanzaba los 407€.

Euskadiko batez besteko gastua **pertsona eta eguneko**, ostatua barne hartuta, 170 €koa da, 2017-2016 aldiko 133 € eta 2014ko 129 €-en aurrean.

El gasto medio **por persona y día** en Euskadi, incluyendo el alojamiento, es de 170€ frente a los 133€ de 2017-2016 y los 129€ de 2014.

Gastu honen banaketa bere kontzeptu guztietan aurreko edizioetakoaren antzekoa da, 2014koa[3] kenduta. Nolanahi ere, gastronomiak, otorduz kanpoko elikadura- edo aisia-atalean, partida garrantzitsuena izaten jarraitzen du.

La distribución de este gasto en sus diferentes conceptos es similar a la observada en ediciones anteriores exceptuando la de 2014[4]. De cualquier modo, la gastronomía, en su apartado de alimentación u ocio fuera de las comidas, sigue siendo la partida más importante.

*GE.29 Euskadin egindako gastu-kontzeptuen banaketa (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*
*GE.29 Distribución de los conceptos de gasto realizado en Euskadi (2019, 2017-2016, 2014, 2012)*




[3] 2014an ikusi zen parte-hartzaileek galdetegiari erantzuteko orduan gastronomiarekin zerikusia duten jardueretan egindako gastuak elikaduran egindako gastutzat jo zituztela eta ez aisia-jarduerako gastutzat; horregatik, emaitzak ezin dira behar bezala konparatu.
En 2014 se detectó que las y los participantes al responder al cuestionario consideraron los gastos en actividades relacionadas con la gastronomía como gastos realizados en alimentación y no como actividad de ocio por lo que los resultados son difícilmente comparables.

[4] 2014an ikusi zen parte-hartzaileek galdetegiari erantzuteko orduan gastronomiarekin zerikusia duten jardueretan egindako gastuak elikaduran egindako gastutzat jo zituztela eta ez aisia-jarduerako gastutzat; horregatik, emaitzak ezin dira behar bezala konparatu.
En 2014 se detectó que las y los participantes al responder al cuestionario consideraron los gastos en actividades relacionadas con la gastronomía como gastos realizados en alimentación y no como actividad de ocio por lo que los resultados son difícilmente comparables.

## 5.- KONGRESU ETA BILTZARREN TURISMOA BISITARIEK GAUA EMATEN DUTEN OSTATU-MOTEN ARABERA

Kapitulu honetan Euskadiko kongresu/biltzarretara etortzen direnen eskaera turistikoaren segmentazioa aztertuko da, gaua ematen duten ostatu-moten arabera. Horretarako, hiru kategoriatan multzokatu dira establezimenduak: 4 edo 5 izarreko hotelak, 3 izarreko hotelak, 1 edo 2 izarreko hotelak, pentsioak eta beste ostatu batzuk. Lehen sailkapen horretan, muturreko kategorien presentzia handiagoa ikusten da; ordezkari gehienek (% 53) 4 edo 5 izarreko hoteletan hartzen dute ostatu, baina, aldi berean, laurden batek baino gehiagok kategoria txikieneko establezimenduetan hartzen dute ostatu (1 edo 2 izarreko hotelak, pentsioak…).

## 5.- EL TURISMO DE CONGRESOS Y CONVENCIONES SEGÚN LOS TIPOS DE ALOJAMIENTO DONDE PERNOTAN LAS Y LOS ASISTENTES

A lo largo de este capítulo se analizará la segmentación de la demanda turística de las y los asistentes a congresos/convenciones en Euskadi en función de los tipos de alojamiento donde pernoctan. Para ello, se han agrupado los establecimientos en tres categorías: hoteles de 4 o 5 estrellas, hoteles de 3 estrellas y hoteles de 1 o 2 estrellas junto con las pensiones y otros alojamientos. De esta primera clasificación, se observa una mayor presencia de las categorías extremas; la mayoría de las y los delegados (53%) se alojan en hoteles de 4 o 5 estrellas, pero a su vez más de una cuarta parte lo hace en los alojamientos de menor categoría (hoteles de 1 o 2 estrellas, pensiones…).

*24. grafikoa. Bisitarien kopurua eta banaketa, ostatu hartzen duten establezimendu-motaren arabera, 2019*
*Gráfico 24. Número y distribución de las y los asistentes según tipo de establecimiento donde se alojan, 2019*




1 edo 2 izarreko hotelak eta pentsioak aukeratzen dituzte egonaldirako jatorri hurbilenekoek. Horiek aukeratzen dituzte inguruko autonomia-erkidegoetatik eta Frantziatik etortzen direnek eta barneko bisitariek (Euskal Autonomia Erkidegokoek). Hiru izarreko hotela da Britainia Handitik eta Kataluniatik etortzen direnek gehien eskatzen duten ostatua, eta Madriletik eta nazioarteko gainerako merkatu nagusietatik etortzen direnek, berriz, kategoria handieneko establezimenduak aukeratzen dituzte (4 eta 5 izarreko hotelak).

Los establecimientos hoteleros de 1 o 2 estrellas y pensiones son los seleccionados para su estancia por las y los asistentes de procedencia más cercana, así son elegidos en mayor medida que el resto de los establecimientos por quienes proceden de las comunidades vecinas, de Francia y por las y los asistentes internos (provenientes de la propia comunidad). El hotel de tres estrellas se encuentra entre las preferencias de alojamiento de las y los residentes en Gran Bretaña y Cataluña mientras que quienes proceden de Madrid y del resto de mercados principales internacionales se decantan por los establecimientos de mayor categoría (hoteles de 4 y 5 estrellas).

*5. taula. Jatorriko merkatu nagusiak, ostatu hartzen duten establezimendu-motaren arabera, 2019*
*Tabla 5. Principales mercados de origen según tipo de establecimiento donde se alojan, 2019*

| Jatorriko merkatu nagusiak **Mercados Principales de Origen** | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | 4 edo 5 izarreko hotelak \| Hotel 4 ó 5 estrellas | 3 izarreko hotela \| Hotel 3 estrellas | 1 edo 2 hotela, pentsioak… \| Hotel 1 ó 2, Pensiones,... |
|---|---|---|---|---|
| **Gainerako aut. erk. \| Resto CC.AA.** | **37,1** | 35,0 | 33,1 | 44,3 |
| **Katalunia \| Cataluña** | **16,3** | 13,0 | 20,9 | 19,3 |
| **Madrilgo aut. erk.\| C.A. Madrid** | **16,1** | 18,6 | 15,5 | 11,6 |
| **Atzerriko gainerako herrialdeak \| Resto países extranjeros** | **10,9** | 13,9 | 12,9 | 3,4 |
| **Aldameneko aut. Erk \| CC. AA. vecinas** | **6,0** | 4,8 | 7,2 | 7,4 |
| **Euskadi** | **3,6** | 3,3 | 1,0 | 6,2 |
| **Britainia Handia \| Gran Bretaña** | **3,2** | 3,6 | 4,1 | 1,8 |
| **Italia** | **1,9** | 2,4 | 2,2 | 0,7 |
| **Frantzia \| Francia** | **1,4** | 1,1 | 0,9 | 2,6 |
| **Alemania** | **1,3** | 1,2 | 1,4 | 1,4 |
| **Benelux** | **1,2** | 2,0 | 0,2 | 0,5 |
| **AEB \| EEUU** | **1,0** | 1,1 | 0,8 | 0,9 |

Parte-hartzaileen adina da pertsonek helmuga batean egoteko aukeratzen duten establezimendu-motarekin eta -kategoriarekin lotura zuzena izan ohi duen ezaugarri soziodemografikoetako bat.

Kategoria baxueneko establezimenduetan ostatu hartzen dutenen batez besteko adina ostatu-mota guztien arteko baxuena da (35 urte), eta turista gazteen proportzio handiena dagoena (% 52k 30 urte baino gutxiago ditu) eta parte-hartzaile seniorren pilaketa txikiena duena (50 urte edo gehiagokoak % 11). Beste aldeko muturrean daude 4 eta 5 izarreko hoteletan ostatu hartzen duten turistak, horien batez besteko adina 45 urtekoa baita, eta turismo seniorraren pisua % 24koa. 3 izarreko hoteletan ostatu hartzen dutenen batez besteko adina 42 urtekoa da.

La edad de las y los asistentes es una de las características sociodemográficas que habitualmente presenta una asociación directa con el tipo y categoría de los establecimientos que eligen las personas para su estancia en un destino.

La edad media de quienes se alojan en establecimientos de menor categoría es la más baja entre los distintos tipos de alojamiento (35 años) y donde se encuentra la mayor proporción de turistas jóvenes (el 52% son menores de 30 años) y la menor concentración de asistentes senior (11% de 50 y más años). En el extremo contrario se encuentran las y los turistas que se alojan en establecimientos hoteleros de 4 y 5 estrellas que cuentan con un promedio de edad de 45 años y un peso del turismo senior del 24%. La edad media de quienes pernoctan en alojamientos de 3 estrellas es de 42 años.

*25. grafikoa. Parte-hartzaileen batez besteko adina, ostatu hartzen duten establezimendu-motaren arabera, 2019*
*Gráfico 25. Edad media de las y los asistentes según tipo de establecimiento donde se alojan, 2019*




*26. grafikoa. Parte-hartzaileen adin-taldeak, ostatu hartzen duten establezimendu-motaren arabera, 2019*
*Gráfico 26. Estratos de edad de las y los asistentes según tipo de establecimiento donde se alojan, 2019*



Nagusiki establezimenduetan ostatu hartzen duten parte-hartzaileen adinari lotuta daude populazioaren beste ezaugarri batzuk, esaterako pertsonen jarduerarekiko egoera eta ikasketa-maila. Hala, ikasleek pisu handiagoa dute 1 eta 2 izarreko hoteletan edo pentsioetan ostatu hartzen dutenen artean (% 20 Euskadiko % 7ren aurrean), eta ikasketak ez amaitzearen ondorioz bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa ere handiagoa da (% 16, Euskadin batez beste erregistratutako % 7ren aurrean).

4 eta 5 izarreko establezimenduetan ostatu hartzen dutenen artean errenta ertain-handiko jende asko dago (% 51, batez bestekoa % 42 denean) eta zuzendari asko (% 11, % 7ren aurrean).

Ez da ia alderik nabaritzen parte-hartzaileek egindako ostatu-gauen kopuruan establezimendu-motaren arabera, kasu guztietan hiru ingurukoa baita.

Vinculadas principalmente a la edad de las y los asistentes alojados en los establecimientos, se encuentran otras características poblacionales como la situación en relación con la actividad de las personas y su nivel de estudios. Así, hay un mayor peso de estudiantes entre quienes se alojan en hoteles de 1 y 2 estrellas o pensiones (20% frente al 7% de promedio en Euskadi) y como consecuencia de no haber finalizado sus estudios, un mayor porcentaje de personas con estudios secundarios (16% sobre el 7% registrado por término medio en Euskadi).

Entre quienes se alojan en establecimientos de 4 y 5 estrellas hay una mayor percepción de pertenencia a rentas medias-altas (51% frente al promedio de 42%) y un número más importante de directivos alojados (11% frente al 7%).

Apenas se observan diferencias en el número de pernoctaciones realizadas por las y los asistentes en función el establecimiento donde se alojan rondando, en todos los casos, los tres días.

*27. grafikoa. Euskadin egindako ostatu-gauen batez bestekoa, ostatu hartzen duten establezimendu-motaren arabera, 2019*

*Gráfico 27. Media de pernoctaciones realizadas en Euskadi según tipo de establecimiento donde se alojan, 2019*




Batez beste, kongresu/biltzarretara etortzen direnen % 57 aurretik ere egon zen Euskadin. Fidelizazio-maila altuena 4 eta 5 izarreko hoteletan ostatu hartzen dutenen artean dago (% 63); maila baxuena, aldiz, 1 eta 2 izarreko hoteletan edo pentsioetan ostatu hartzen dutenen artean (% 46). Aisia-arrazoiengatik egindako aurreko bisita ohikoagoa da 3 izarreko establezimenduetan (% 43) eta 1 eta 2 izarreko hoteletan edo pentsioetan (% 37) ostatu hartzen dutenen artean. 4 eta 5 izarreko establezimenduetan ostatu hartzen dutenak modu berdintsuan banatzen dira Euskadira aurretik aisia-arrazoiengatik (% 33) eta arrazoi profesionalengatik (% 31) etorri zirenen artean.

Por término medio, el 57% de las y los asistentes a congresos/convenciones había estado con anterioridad en Euskadi. El mayor grado de fidelización se encuentra entre quienes se alojan en hoteles de 4 y 5 estrellas (63%); mientras que la menor tasa se haya entre las y los alojados en hoteles de 1 y 2 estrellas o pensiones (46%). La visita anterior por motivos de ocio es más frecuente entre quienes se alojan en establecimientos de 3 estrellas (43%) y en hoteles de una y dos estrellas o pensiones (37%). Las y los asistentes que se alojan en establecimientos hoteleros de 4 y 5 estrellas prácticamente se reparten equitativamente entre quienes acudieron a Euskadi anteriormente por motivos de ocio (33%) y por motivos profesionales (31%).

*28. grafikoa. Fidelizazio-tasa, Euskadiko bisita errepikatzen duten turisten ehunekoa, ostatu hartzen duten establezimendu-motaren arabera, 2019*

*Gráfico 28. Tasa de fidelización, porcentaje de turistas que repiten su visita a Euskadi, según tipo de establecimiento donde se alojan, 2019*



Gomendio-tasak parte-hartzaileek helmugaren sustatzaile bihurtu ahal izateko duten maila neurtzen du (segurtasun osoz gomendatuko liekete Euskadi aisia-helmuga gisa inguruko pertsonei), eta 1 eta 2 izarreko hoteletan edo pentsioetan ostatu hartzen dutenen % 80 eta 3 izarreko hoteletan ostatu hartzen dutenen % 91 artean dago.

La tasa de recomendación, que mide el grado en que las y los asistentes pueden convertirse en promotores del destino (recomendaría Euskadi como destino de ocio a personas cercanas con total seguridad), oscila entre el 80% de quienes se alojan en hoteles de 1 y 2 estrellas o pensiones y el 91% de quienes se alojan en establecimientos hoteleros de 3 estrellas.

*29. grafikoa. Gomendio-tasa, familiakoei eta lagunei Euskadi aisia-helmuga gisa ziurtasun osoz gomendatuko dieten turisten ehunekoa, ostatu hartzen duten establezimendu-motaren arabera, 2019*
*Gráfico 29. Tasa de recomendación, porcentaje de turistas que con seguridad recomendarán Euskadi a familiares y amistades como destino de ocio, según tipo de establecimiento donde se alojan, 2019*




Bestalde, atxikitze-tasa (zenbat pertsonak esaten duten ziurtasun osoz hurrengo 12 hilabeteetan aisia-arrazoiengatik Euskadira berriro etortzeko prest daudela) hiru izarreko hoteletan ostatu hartzen dutenen % 25 eta 1 eta 2 izarreko hoteletan edo pentsioetan ostatu hartzen dutenen % 27 artean dago.

Por otra parte, la tasa de retención (cuantas personas afirman con seguridad que estarían dispuestos a volver a Euskadi en los próximos 12 meses por motivos de ocio) varía entre el 25% de asistentes que se alojan en hoteles de tres estrellas y el 27% de quienes se alojan en hoteles de 1 y 2 estrellas o pensiones.

*30. grafikoa. Atxikitze-tasa, hurrengo 12 hilabeteetan Euskadira berriro etorriko direla ziurtasun osoz esaten duten parte-hartzaileen ehunekoa, ostatu hartzen duten establezimendu-motaren arabera, 2019*
*Gráfico 30. Tasa de retención, porcentaje de asistentes que afirman con seguridad que tienen intención de volver a Euskadi por motivaciones de ocio en los próximos 12 meses, según tipo de establecimiento donde se alojan, 2019*




Euskadiko kongresu/biltzarretara etortzen direnen artean Euskadin ordaindutako pertsonako gastu handiena 4 eta 5 izarreko hoteletan ostatu hartzen dutenek egiten dute (535 €); bigarren tokian hiru izarreko establezimenduetan ostatu hartzen dutenak daude (468 €). Inbertsio txikiena, berriz, izar bateko eta biko hoteletan eta pentsioetan ostatu hartzen dutenek egiten dute (375 €).

Entre las y los asistentes a congresos/convenciones en Euskadi el mayor presupuesto de gasto por persona abonado en Euskadi lo asumen quienes se alojan en hoteles de 4 y 5 estrellas (535€); el segundo lugar lo ocupan las y los participantes alojados en establecimientos de tres estrellas (468€). La menor inversión la realizan las y los turistas que pernoctan en alojamientos de una y dos estrellas o pensiones (375€).

Euskadin pertsona eta eguneko egiten den gastuaren analisiak, gaua ematen duten ostatu-motaren araberako honako zenbateko hauek eskaintzen ditu, beheranzko hurrenkeran: 4 eta 5 izarreko hotelak (184 €), hiru izarreko hotelak (172 €), eta izar bateko eta biko hotelak edo pentsioak (142 €).

El análisis del gasto por persona y día en Euskadi ofrece, en orden decreciente, las siguientes cuantías en función del tipo de alojamiento donde pernoctan: hoteles de 4 y 5 estrellas (184€), hoteles de tres estrellas (172€), y hoteles de 1 y 2 estrellas o pensiones (142€).

*31. grafikoa. Euskadin pertsona eta eguneko egindako batez besteko gastua, ostatu hartzen duten establezimendu-motaren arabera, 2019*

*Gráfico 31 Gasto medio por persona y día abonado en Euskadi según tipo de establecimiento donde se alojan, 2019*



# 6.- EUSKADIKO KONGRESU/BILTZARRETARA ETORTZEN DIREN EMAKUME ETA GIZONEN PORTAERA BEREIZGARRIEN FUNTSEZKO ARDATZEN AZTERKETA

Kapitulu honetan, Euskadiko kongresu/biltzarretan parte hartzen duten emakume etea gizonek adierazitako jarrera, lehentasun edo balorazioen artean alde esanguratsua ikusten den alderdien ebaluazio espezifikoa egingo da. Baina horri ekin aurretik, garrantzitsua da zehaztea segmentu horietako bakoitzak Euskadiko kongresu/biltzarren jardueran duen norainokoa.

Hala, ekitaldietan parte hartzen dutenen % 43 dira emakumeak eta % 57 gizonak.

Euskadiko batez bestekoaren (% 26) gainetik, emakumeen ia % 32k kategoria baxueneko establezimenduak aukeratzen ditu (izar bateko eta biko hotelak edo pentsioak) kongresua/biltzarra egiten den garaiko egonaldirako. Gizonek, bestalde, joera handiagoa dute 4 edo 5 izarreko hoteletan ostatu hartzeko (gizonen % 60 eta emakumeen % 44).

# 6.- ANÁLISIS DE LOS FACTORES CLAVE QUE DIFERENCIAN EL COMPORTAMIENTO DE LAS MUJERES Y HOMBRES ASISTENTES A CONGRESOS Y CONVENCIONES EN EUSKADI

En este capítulo se va a realizar una evaluación específica de aquellos aspectos en los que se observa una diferencia significativa entre las conductas, preferencias o valoraciones declaradas por las mujeres y hombres asistentes a congresos/convenciones en Euskadi. Pero antes de proceder, es importante dimensionar el alcance de cada uno de estos segmentos en la actividad de congresos/convenciones en Euskadi.

Así, las mujeres representan el 43% de las personas participantes en los eventos frente al 57% de los hombres.

Por encima del promedio de Euskadi (26%), casi el 32% de las mujeres se decanta por establecimientos de menor categoría (hoteles de 1 y 2 estrellas o pensiones) para su estancia durante la celebración del congreso/convención. Por su parte, los hombres muestran una mayor tendencia a alojarse en establecimientos hoteleros de 4 o 5 estrellas (60% con respecto al 44% de las mujeres).

*32. grafikoa. Parte-hartzaileek ostatu hartzen duten establezimendu-mota, sexuaren arabera, 2019*
*Gráfico 32. Tipo de establecimiento donde se alojan las y los asistentes según sexo, 2019*



Euskadiko kongresu/biltzarretara etortzen diren emakumeen % 85 estatukoak dira. Gizonen kasuan, % 74.

El 85% de las mujeres que acuden a congresos/convenciones en Euskadi son de procedencia estatal. En el caso de los hombres este porcentaje es del 74%.

Parte-hartzaileen batez bestekoaren gainetik dago Kataluniatik etorritako emakumeen batez bestekoa (% 18) eta batez ere Madriletik etorritakoena (% 22).

Por encima de la media de participantes en Euskadi se sitúa el porcentaje de mujeres procedentes de Cataluña (18%) y sobre todo de Madrid (22%).

*6. taula. Jatorriko merkatu nagusiak, sexuaren arabera, 2019*
*Tabla 6. Principales mercados de origen según sexo, 2019*

| Jatorriko merkatu nagusiak<br>Mercados Principales de Origen | MICE turistak guztira \| Total turistas MICE | Gizonak \| Hombres | Emakumeak \| Mujeres |
|---|---|---|---|
| **Gainerako aut. erk. \| Resto CC.AA.** | **37,1** | **37,0** | **37,1** |
| **Katalunia \| Cataluña** | **16,3** | **15,3** | **17,6** |
| **Madrilgo aut. erk.\| C.A. Madrid** | **16,1** | **11,9** | **21,8** |
| **Atzerriko gainerako herrialdeak \| Resto países extranjeros** | **10,9** | **12,7** | **8,5** |
| **Aldameneko aut. Erk \| CC. AA. vecinas** | **6,0** | **6,1** | **5,7** |
| **Euskadi** | **3,6** | **3,8** | **3,3** |
| **Britainia Handia \| Gran Bretaña** | **3,2** | **3,9** | **2,3** |
| **Italia** | **1,9** | **3,3** | **0,1** |
| **Frantzia \| Francia** | **1,4** | **1,8** | **0,9** |
| **Alemania** | **1,3** | **1,8** | **0,6** |
| **Benelux** | **1,2** | **0,9** | **1,8** |
| **AEB \| EEUU** | **1,0** | **1,4** | **0,4** |

Berez elementu bereizgarria ez den arren, Euskadiko kongresu/biltzarretara etortzen diren emakumeen batez bestekoa gizonena baino zerbait txikiagoa da (40 eta 43 urte, hurrenez hurren). Euskadiko ekitaldietan parte hartzen duten emakumeen % 63k 40 urte baino gutxiago ditu, eta gizonen artean, aldiz, % 50ek. Beste muturrean, turismo seniorrak (50 urte eta gehiagokoak) gizonen % 23 eta emakumeen % 14 hartzen du.

Aunque no resulta un elemento diferenciador como tal, la media de edad entre las mujeres asistentes a congresos/convenciones en Euskadi es algo menor que la de los hombres (40 y 43 años respectivamente). Mientras el 63% de las mujeres que participan en eventos en Euskadi tiene menos de 40 años, esta proporción alcanza el 50% entre los hombres. En el extremo contrario, el turismo senior (de 50 y más años) representa el 23% de los hombres y el 14% de las mujeres.

*33. grafikoa. Parte-hartzaileen batez besteko adina, sexuaren arabera, 2019*
*Gráfico 33. Edad media de las y los asistentes según sexo, 2019*




Gizon zein emakumeek hegazkina erabiltzen dute Euskadira iristeko garraiobide nagusi gisa, baina ez proportzio berean (% 55 eta % 52, hurrenez hurren). Alde hori konpentsatzeko, emakumeek gehiago erabiltzen dute autobusa (% 5 emakumeek eta % 2 gizonek). Bi kasuetan, bigarren garraiobide garrantzitsuena ibilgailu pribatua da, proportzio berarekin (% 37).

Tanto hombres como mujeres utilizan el avión como medio de transporte principal para llegar a Euskadi, pero no lo hacen en la misma proporción (55 y 52%. respectivamente). Esta diferencia en el caso de las mujeres se traslada a un ligero incremento de uso del autobús (5% de las mujeres frente al 2% de los hombres). En ambos casos el segundo medio de desplazamiento en importancia es el vehículo privado con idéntica penetración (37%).

Euskadira iritsitakoan, emakumeek gizonek baino aisia-jarduera gehiago egiten dituzte egonaldian zehar (ehuneko +10 puntu). Gizon eta emakumeek antzeko kopuruan egiten dituzte gastronomiarekin zerikusia duten jarduerak (% 92 eta % 94, hurrenez hurren) eta hiriko turismoko jarduerak (% 83 eta % 82 bakoitzak). Alderdiren bat nabarmentzearren, emakumeak gizonen batez bestekoaren gainetik daude turismo kulturalarekin zerikusia duten jarduerak egiteko orduan (% 57 eta % 49); baina azpitik daude lurraldean ibilbide turistikoak egiteko orduan (% 14 eta % 20). Emakumeen % 30ek esaten du Euskadin egindako aisia-jarduerek gainditu egin dituztela beren itxaropenak. Gizonei dagokienez, % 22k esaten du hori.

Una vez en Euskadi las mujeres realizan, en mayor medida que los hombres, actividades de ocio durante su estancia (+10 puntos porcentuales). En términos muy parecidos, hombres y mujeres realizan actividades relacionadas con la gastronomía (92% y 94% respectivamente) y de turismo en la ciudad (83% y 82% cada uno). Por destacar algún aspecto, las mujeres realizan por encima de la media de los hombres actividades relacionadas con el turismo cultural (57% frente al 49%); y por debajo de éstos, llevan a cabo rutas turísticas por el territorio (14% frente al 20%). El 30% de las mujeres afirma que las actividades de ocio realizadas en Euskadi han superado sus expectativas, en tanto que esta afirmación es expuesta por el 22% de los hombres.

*34. grafikoa. Bisitarien parte-hartzea aisia-jardueretan (egin dituzten pertsonen ehunekoa), sexuaren arabera, 2019*
*Gráfico 34. Participación de las y los asistentes en actividades de ocio (porcentaje de personas que las han realizado) según sexo, 2019*




Fidelizazio-tasa % 62koa da gizonen artean eta % 51koa emakumeen artean. Euskadin aurretik egondako emakumeen proportzioa handiagoa zen aisia-arrazoiengatik etorritakoen artean kontu profesionalengatik etorritakoen artean baino. Gainerako adierazle turistikoek emaitza berdintsuak dituzte emakume eta gizonen artean. Horrenbestez, inguruko pertsonei Euskadi aisia-helmuga gisa gomendatzeko tasa % 88koa da emakumeen artean eta % 85ekoa gizonen artean. Euskadira aisia-arrazoiengatik ziurtasun osoz berriro etortzeko asmoa (atxikitze-tasa) emakumeen % 24k eta gizonen % 28k adierazten du.

La tasa de fidelización se sitúa en el 62% de los hombres y el 51% de las mujeres. En mayor proporción las mujeres habían estado con anterioridad en Euskadi por motivos de ocio frente a la visita por asuntos profesionales. El resto de los indicadores turísticos ofrecen resultados bastante parejos entre mujeres y hombres. Así, la tasa de recomendación de Euskadi a personas cercanas como destino de ocio es del 88% en las mujeres y del 85% entre los hombres. La intención de volver a Euskadi con total seguridad por motivaciones de ocio (tasa de retención) mueve al 24% de las mujeres frente al 28% de los hombres.

*35. grafikoa. Fidelizazio-tasa, Euskadira berriro etortzen diren turisten ehunekoa, sexuaren arabera, 2019*
*Gráfico 35. Tasa de fidelización, porcentaje de turistas que repiten su visita a Euskadi, según sexo, 2019*



Gizonek Euskadin gastu handiagoa egiten dute pertsonako kongresu/biltzarrean parte hartzeak eragindako gastuak estaltzeko (498 € gizonek eta 453 € emakumeek); horren ondorioz, Euskadin pertsona eta eguneko egindako gastua ere handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino: 178 € eta 161 €, hurrenez hurren.

Los hombres realizan un mayor gasto por persona en Euskadi para cubrir los gastos ocasionados por la asistencia al congreso/convención (498€ los hombres y 453€ las mujeres); lo que se traduce también en un mayor desembolso efectuado por persona y día en Euskadi: 178€ para los hombres y 161€ para las mujeres.

*36. grafikoa. Euskadin ordaindutako batez besteko gastua pertsona eta eguneko, sexuaren arabera, 2019*
*Gráfico 36 Gasto medio por persona y día abonado en Euskadi según sexo, 2019*



## 7.- KONGRESU ETA BILTZARRETAN PARTE HARTZEN DUTENEN TIPOLOGIAK

Estatistiketan ikertutako edozein kolektiboren berezitasunak ezagutzeko metodorik egokienetako bat **taldeen arteko antzekotasun handienak** bilatzea da, aldi berean **multzo posibleen arteko ahalik eta desberdintasun handienak** eragingo dituztenak.

Tamaina handiko inkesta bati Sailkapeneko Analisi bat (edo Kluster Analisi bat) aplikatzeak pertsonei eta beren ezaugarriei buruzko informazio asko ematen digu, erantzunen artean portaera- eta erlazio-ereduak adieraziz.

Kapitulu honek analisia eta estatistika-mota horiek aplikatu ondoren lortutako ondorio nagusiak aurkezten ditu.

Egindako tipifikazio-analisian, honako hauekin zerikusia dutenak aukeratu dira talde horiek sortzeko aldagai esanguratsuenen artean: informazio soziodemografikoa, parte-hartzailearen bidaiatzeko modua, ostatu hartzen duen establezimendu-mota, jarduerak eta jatorria, bai eta kongresu/biltzarrarekin lotura handiagoa dutenak ere, esaterako, kongresua/biltzarraren hiria eta zer jarduera-sektoretakoa den.

Sailkapeneko analisi hori aplikatzearen ondorioz, 5 mota edo talde desberdin atera dira. Horrela, talde berean daude beraien artean antzekotasun handiena duten eta gainerako taldeetako kideekin alde handiena duten pertsonak.

Parentesi artean, mota bakoitzaren izenaren ondoren ageri da talde bakoitzaren barruan sailkatuta dagoen ikertutako kolektiboko pertsonen ehunekoa.

**1. mota (% 26). Donostiako kongresu eta biltzarretara etortzen diren eta aisia-arrazoiengatik berriro etortzeko asmo handia duten parte-hartzaileak.**

Mota horretako parte-hartzaile guztiak Donostian egon dira. Gehienak Euskadira aurretik etorrita zeuden eta nagusi dira aisia-arrazoiengatik ziurtasun osoz itzuliko direla esaten dutenak (% 63), eta gainerakoek ere gerta litekeela uste dute. Ekitaldi-mota ohikoenak mediko-sanitarioak eta zientifikoak dira. Horien artean errenta ertaineko mailan sartzen diren pertsona asko daude (% 75).

Gehienak estatuko parte-hartzaileak dira (% 98), ibilgailu pribatuan etortzen direnak eta bi ostatu-motaren artean banatzen direnak: izar bateko edo biko hotelak eta pentsioak edo 4 edo 5 izarreko hotelak. Adin-kategoria ohikoena 35 eta 44 urte artekoa da eta gehienak emakumeak dira (% 57). Egonaldian hiriko turismoarekin eta gastronomiarekin zerikusia duten jarduerak ia modu esklusiboan egitea da horien ezaugarri bereizgarria.

## 7.- TIPOLOGÍAS DE ASISTENTES A CONGRESOS Y CONVENCIONES

Uno de los métodos más apropiados para la caracterización de cualquier colectivo investigado en operaciones estadísticas consiste en la búsqueda de **máximas similitudes intragrupales** que supongan, a la vez, **máximas diferencias entre los conjuntos** posibles.

La aplicación de un Análisis de Clasificación (o Análisis Clúster) a una encuesta de gran tamaño nos revela gran información respecto a las personas y las características que se recogen en ella, poniendo de manifiesto patrones de comportamiento y relaciones entre las respuestas.

Este capítulo presenta el análisis y las principales conclusiones que se han obtenido tras la aplicación de este tipo de prácticas estadísticas.

En el análisis de tipificación realizado se han considerado como variables más significativas, para la creación de estos grupos, las relacionadas con: la información sociodemográfica, la forma de viajar del/la asistente, el tipo de establecimiento donde se aloja, la realización de actividades y el origen, así como las más asociadas a la celebración del congreso/convención, como son la ciudad donde se ha llevado a cabo y el sector de actividad al que pertenece.

Como consecuencia de la aplicación de este análisis de clasificación se han obtenido 5 clases o grupos diferentes. De manera que dentro de un mismo grupo se encuentran las personas con mayor similitud entre ellas y más diferenciadas con los componentes del resto de los grupos.

Entre paréntesis, y a continuación del nombre de cada clase se presenta el porcentaje de personas del colectivo investigado que se encuentra clasificado dentro de cada grupo.

**Clase 1 (26%). Asistentes estatales a congresos y convenciones en Donostia / San Sebastián con fuertes aspiraciones de volver por motivaciones de ocio.**

La totalidad de las y los asistentes pertenecientes a esta clase han acudido al evento en Donostia / San Sebastián. La gran mayoría había estado en Euskadi y predominan en este conjunto de asistentes quienes aseguran que volverán a Euskadi por motivaciones de ocio con total seguridad (63%) y prácticamente el resto lo cree probable. Los tipos de evento más frecuentes son los de tipo médico sanitario y científico. Hay una fuerte presencia en este clúster de personas que se clasifican en un nivel de renta medio (75%).

Se trata principalmente de participantes de origen estatal (98%) que acuden mayoritariamente en vehículo privado y se dividen básicamente entre dos tipos de alojamiento: los hoteles de una o dos estrellas y pensiones o los hoteles de 4 o 5 estrellas. La categoría de edad más frecuente se sitúa entre los 35 y los 44 años y mayoritariamente son mujeres (57%). Les define la realización casi exclusiva durante su estancia de actividades de ocio relacionadas con el turismo en la ciudad y la gastronomía.

**2. mota (% 22). Bilbon egiten diren sektore mediko-sanitarioko kongresu eta biltzarretara etortzen diren estatuko bisitariak.**

Mota horretako parte-hartzaile gehienak Bilbon egiten diren kongresu eta biltzarretara etortzen dira.

Ekitaldi-mota nagusiak arlo mediko-sanitariokoak dira, eta parte-hartzaile gehienen errenta-maila ertain-altua da.

Gehienak estatukoak dira (% 98); hiru laurdenek adierazi dute aurretik ere egon zirela Euskadin eta aukera asko daudela aisia-arrazoiengatik berriro itzultzeko. Gehienak gizonak dira (% 61) eta ostatu hartzen duten establezimendu-mota nagusia lau eta bost izarreko hotelak dira (% 61). Mota horretako parte-hartzaile asko hegazkinez etortzen dira (% 62). Mota horretako parte-hartzaileen artean adin-tarte gehienak dauden arren, adin-tarte nagusia 35 eta 44 urte bitartekoa da.

Gehienek egiten duten aisia-jarduera gastronomiarekin zerikusia duena da.

**3. mota (% 19). Gasteizen eta Donostian egiten diren izaera teknologikoko kongresu eta biltzarretako parte-hartzaileak.**

Multzo horretako parte-hartzaileen ezaugarri nagusia kongresu eta/edo biltzarren izaera teknologikoa da. Parte-hartzaile gehienak Gasteizen egiten diren kongresu eta biltzarretara etortzen dira (% 69), eta gainerakoak Donostian egiten diren ekitaldietara.

Gehienak aurretik Euskadira etorri ez ziren gizonak dira (% 77). Jatorriari dagokionez, estatukoen (% 62) eta nazioartekoen (% 48) artean banatzen, dira eta, jatorriari lotuta, gehienak hegazkinez (% 44) edo ibilgailu pribatuan iristen dira Euskadira. Batez ere lau eta bost izarreko hoteletan hartzen dute ostatu (% 72).

Ez dute egiten hiriko turismoari lotutako jarduerarik; bai, ordea, turismo kulturalarekin eta gastronomiarekin zerikusia dutenak, parte-hartzaie horien jarduera bereizgarriak ez izan arren.

**4. mota (% 17). Bilboko kongresu eta biltzarretara etortzen diren nazioarteko parte-hartzaileak, dinamikoak aisia-jardueretan.**

Kongresu eta biltzarretako parte-hartzaileen multzoarekin konparatuta, talde horren ezaugarri bereizgarria honako hau da: Euskadin egoten diren denboran ibilbide turistikoak egiten dituzte. Mota horretako guztiek Bilbon egiten diren kongresu eta/edo biltzarretan hartzen dute parte; gehienak (% 71) nazioartekoak dira eta hegazkinez iristen dira Euskadira (% 87). Parte hartzen duten kongresu eta biltzarren tematika askotarikoa izaten da: mediko-sanitarioa, gizarte-zientziak, hezkuntza, teknologia, etab.

**Clase 2 (22%). Asistentes estatales a congresos y convenciones del sector médico sanitario en Bilbao.**

La inmensa mayoría de las y los participantes pertenecientes a esta clase acuden a congresos o convenciones celebradas en Bilbao.

Entre los principales aspectos de esta clase está el predominio de asistencia a eventos del sector médico-sanitario y la clasificación de la mayoría de las y los participantes en un entorno de renta medio-alto.

La mayor parte son de origen estatal (98%); tres cuartas partes declaran haber estado con anterioridad en Euskadi y con bastante probabilidad volverán por motivos de ocio. Mayoritariamente son hombres (61%) y el tipo de establecimiento predominante donde se alojan son los hoteles de cuatro y cinco estrellas (61%). Buena parte de las y los pertenecientes a esta clase llega a Euskadi en avión (62%). Aunque todos los cortes de edad están presenten en esta clase, el estrato predominante es de 35 a 44 años.

Las actividades de ocio más relevante que realizan son las relacionadas con la gastronomía.

**Clase 3 (19%). Asistentes a congresos y convenciones de carácter tecnológico en Vitoria-Gasteiz y Donostia / San Sebastián.**

La principal característica de este conjunto de asistentes es el componente tecnológico de los congresos y/o convenciones a los que acuden. Aunque la mayoría de las y los participantes de esta clase asisten a congresos y convenciones celebrados en Vitoria-Gasteiz (69%) el resto se desplaza a eventos localizados en Donostia/San Sebastián.

En su mayoría son hombres (77%) que no habían estado en Euskadi con anterioridad. En cuanto al origen se reparte entre estatales (62%) e internacionales (48%) y, asociado a su procedencia, llegan a Euskadi principalmente en avión (44%) o en vehículo privado. Se alojan fundamentalmente en hoteles de cinco y cuatro estrellas. (72%).

No realizan actividades de turismo de ciudad, pero sí de turismo cultural y de gastronomía, aunque no son actividades definitorias de este conjunto de asistentes.

**Clase 4 (17%). Asistentes internacionales a congresos y convenciones en Bilbao; dinámicos en la realización de actividades de ocio.**

El rasgo que mejor define a este grupo de participantes con respecto al conjunto de asistentes a congresos y convenciones es la realización de rutas turísticas durante su estancia en Euskadi. La totalidad de quienes pertenecen a esta clase participa en congresos y/o convenciones celebradas en Bilbao y en su mayoría (71%) son de origen internacional y han llegado a Euskadi en avión (87%). La temática de los congresos y convenciones a los que acuden es variada: médico-sanitaria, ciencias sociales, educación, tecnología etc.

Gehienak ez ziren aurretik egon Euskadin, baina aisia-arrazoiengatik berriro etortzeko aukera asko daudela adierazten dute.

Gainerako parte-hartzaileekin konparatuta, erosketak eta jarduera gastronomikoak, turismo kulturalekoak eta hiriko turismoarekin zerikusia dutenak egiteagatik nabarmentzen dira.

Ia erdiak 35 eta 44 urteko adin-taldekoak dira.

**5. mota % (16). Euskadi lehen aldiz bisitatu eta Gasteizko kongresu eta biltzarretara etortzen direnak.**

Multzo horretako parte-hartzaile gehienak Gasteizen (% 90) egiten diren kongresu eta biltzar mediko-sanitarioetara (% 59) etortzen dira eta emakumeak dira (% 68).

Adin guztietako ordezkariak daude eta, adin-tarterik ohikoena ez izan arren, nabarmentzekoa da gazteenen parte-hartzea (18 eta 24 urte bitartekoak).

Gehienak estatukoak dira eta % 71 ez zen aurretik Euskadin egon.

Gainerako parte-hartzaileei dagokienez, gastronomiarekin lotutako jarduerek eragin txikiena duten taldea da. Kategoria guztietako establezimenduetan hartzen dute ostatu.

La mayoría no había estado con anterioridad en Euskadi, pero manifiestan una probabilidad alta de volver por motivos de ocio.

Comparado con el resto de las y los asistentes destacan por la realización de compras y actividades gastronómica, de turismo cultural y de ciudad durante su estancia.

Casi la mitad se sitúa en un estrato de edad de entre 35 y 44 años.

**Clase 5 (16%). Asistentes que visitan Euskadi por primera vez y acuden a congresos y convenciones en Vitoria-Gasteiz.**

La mayoría de las y los participantes que pertenecen a este conjunto se desplazan a congresos y convenciones de carácter médico-sanitarios (59%) celebrados en Vitoria-Gasteiz (90%) y son mujeres (68%).

Hay representantes de todas las edades y a pesar de no ser el estrato más frecuente cabe destacar en esta agrupación la participación de las y los asistentes más jóvenes (de 18 a 24 años).

La mayor parte son de origen estatal y el 71% no había estado en Euskadi con anterioridad.

Respecto al resto de las y los asistentes, es el grupo donde menor incidencia tiene las actividades relacionadas con la gastronomía. Se alojan en establecimientos hoteleros de todas las categorías.

## FITXA TEKNIKOA

**Unibertsoa.**

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan antolatutako batzar eta konbentzioetan entzule edo hizlari gisa parte hartzeko Euskadiko **establezimendu publikoetan** ostatu hartzen duten turistak.

**Laginaren diseinua.**

- Erreferentzia-aldia: 2019 urtea.
- Hautaketa-metodoa: Inkestak egiteko baimena eskatu zen Euskadiko hiriburuetan erreferentziako urtean zehar egindako batzar eta konbentzio guztietan.
  Batzar batean baimena lortzen bazen, inkesta egiteko informatzaileak aukeratzen ziren, **ausaz,** entzuleen eta hizlarien artean.
- Behin betiko laginketa-puntuak: 11.000 pertsona inguru barne hartzen zituzten 30 laginketa-puntu ezarri ziren.

## FICHA TÉCNICA

**Universo.**

Conjunto de turistas que, por asistir como oyente o ponente a *congresos y convenciones* celebrados en las capitales vascas, pernoctan en **establecimientos públicos** de la *C. A. de Euskadi.*

**Diseño Muestral.**

- Periodo de Referencia: Año 2019.
- Método de Selección: Solicitud de permisos de encuesta para todos los congresos y convenciones celebrados en las capitales vascas a lo largo del año de referencia.
  En aquellos en los que se conseguía el permiso oportuno, se seleccionaba **aleatoriamente**, entre asistentes y ponentes, a las personas informantes de la encuesta.
- Puntos de Muestreo Finales: Se establecieron 30 puntos de muestreo que han afectado a cerca de 11.000 asistentes.

***LAGINKETA PUNTUAK: BATZAR/KONBENTZIOAK ETA PARTE-HARTZAILEAK***
***PUNTOS DE MUESTREO: NÚMERO DE CONGRESOS/CONVENCIONES Y ASISTENTES***

| 2019. urtea<br>Año 2019 | Batzar / konbentzioa<br>Congreso / convención | Parte-hartzaileak<br>Asistentes |
|---|---|---|
| **GUZTIRA / TOTAL** | **30** | |
| **2019 - Maiatza / 2019-Mayo** | **2** | |
| Zientifikoa / Científico | 1 | 1.000 |
| Ekonomia-Merkataritza / Económico-Comercial | 1 | 600 |
| **2019 - Ekaina / 2019-Junio** | **8** | |
| Ekonomia-Merkataritza / Económico-Comercial | 1 | 250 |
| Hezkuntza / Educación | 1 | 250 |
| Medikuntza-Osasuna / Médico-Sanitario | 4 | 1.950 |
| Teknologikoa / Tecnológico | 2 | 680 |
| **2019 - Uztaila / 2019-Julio** | **4** | |
| Zientifikoa / Científico | 2 | 310 |
| Hezkuntza / Educación | 1 | 120 |
| Medikuntza-Osasuna / Médico-Sanitario | 1 | 1.500 |
| **2019 - Iraila / 2019-Septiembre** | **7** | |
| Zientifikoa / Científico | 2 | 320 |
| Ekonomia-Merkataritza / Económico-Comercial | 1 | 300 |
| Gizartea / Sociedad | 4 | 1.005 |
| **2019 - Urria / 2019-Octubre** | **7** | |
| Zientifikoa / Científico | 1 | 400 |
| Ekonomia-Merkataritza / Económico-Comercial | 2 | 350 |
| Hezkuntza / Educación | 1 | 70 |
| Medikuntza-Osasuna / Médico-Sanitario | 3 | 1.750 |
| **2019 - Azaroa / 2019-Noviembre** | **2** | |
| Ekonomia-Merkataritza / Económico-Comercial | 1 | 55 |
| Zientifikoa / Científico | 1 | 70 |

*IBILTUR batzar eta konbentzioak, 2019*
*IBILTUR congresos y convenciones 2019*

**Galde-sorta.**

Informazioa galde-sorta baten bidez bildu da. Hain zuzen, informazio-arlo hauek landu dira:

- ✓ Bidaiaren arrazoia.
- ✓ Egonaldiko aisia-jarduerak.
- ✓ Gastuak.
- ✓ Bidaia.
- ✓ Balorazioak.
- ✓ Garraiobideak.
- ✓ Informazio soziodemografikoa.

**Cuestionario.**

La recogida de información se ha realizado mediante cuestionario estructurado en las siguientes áreas de información:

- ✓ Motivo del viaje.
- ✓ Actividades de ocio durante la estancia.
- ✓ Gastos.
- ✓ Viaje.
- ✓ Valoraciones.
- ✓ Medios de Transporte.
- ✓ Información Sociodemográfica.

**Elkarrizketarako teknika.**

Elkarrizketa pertsonala, tableta erabilita. Tabletak aukera ematen du landa-lanean jasotako informazioa gordetzeko, linean baliozkotzeko, erregistratzeko eta telematikoki bidaltzeko.

**Técnica de Entrevista.**

Entrevista personal asistida con *Tablet* que permite la grabación, validación en línea, registro y envío telemático de la información recogida en campo.

**Inferentzia-metodoa.**

- Erreferentzia-esparrua.
  Gasteiz, Bilbo eta Donostiako *Convention Bureau* bulegoek 2019an zenbatutako batzar eta konbentzioetan parte hartutako pertsonak hartu dira gorakadaren erreferentzia-esparrutzat.

**Método de Inferencia.**

- Marco de Referencia.
  Se ha utilizado como marco de referencia para la elevación, a las y los asistentes a congresos y convenciones contabilizados en 2019 facilitados por los *Convention Bureau de Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia/San Sebastián*.

***EUSKADIKO 2019. URTEKO BATZAR ETA KONBENTZIO JARDUERA***
***ACTIVIDAD DE CONGRESOS Y CONVENCIONES EN EUSKADI 2019***

| | GUZTIRA \| TOTAL | Vitoria-Gasteiz | Bilbo \| Bilbao | Donostia \| San Sebastián |
|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA \| TOTAL** | **117.232** | **12.315** | **75.513** | **29.404** |
| **Batzarrak \| Congresos** | **96.310** | **10.530** | **59.314** | **26.466** |
| **Konbentzioak \| Convenciones** | **20.922** | **1.785** | **16.199** | **2.938** |

*2019ko MICE turismoaren jarduera. Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Convention Bureau bulegoak*
*Actividad MICE 2019. Convention Bureau de VitoriaGasteiz, Bilbao y Donostia-San Sebastián*

- Laginaren tamaina.
  960 erantzun baliagarri lortu dira.

- Tamaño Muestral.
  Se han conseguido 960 respuestas válidas.

***HIRI BAKOITZEKO INKESTA KOPURUA, BATZAR ETA KONBENTZIOAREN ESPARRUAREN ARABERA***
***ENCUESTAS POR CIUDAD DE CELEBRACIÓN SEGÚN ÁMBITO DEL CONGRESO/CONVENCIÓN***

| | GUZTIRA \| TOTAL | Estatua / Estatal | Nazioartea / Internacional |
|---|---|---|---|
| **GUZTIRA \| TOTAL** | **960** | **756** | **204** |
| **Vitoria-Gasteiz** | **333** | **280** | **53** |
| **Bilbo \| Bilbao** | **341** | **235** | **106** |
| **Donostia \| San Sebastián** | **286** | **241** | **45** |

*IBILTUR batzar eta konbentzioak, 2019*
*IBILTUR congresos y convenciones 2019*

- Laginaren errorea.
  Jarraian, lagin-errore teorikoei buruzko kalkulu bat azalduko dugu, % 95,5eko konfiantza-mailakoa (hori horrelakoa izateko probabilitatea), populazio finituei (100.000 elementu baino gutxiago) eta % 50eko kasurik txarrenerantz banatzen diren ezaugarri dikotomikoei buruzkoa.

- Error Muestral.
  Se ofrece a continuación una estimación de los errores teóricos muestrales calculados para poblaciones finitas (menos de 100.000 elementos), con un nivel de confianza del 95,5% (probabilidad de que ello sea así) y para características dicotómicas que se distribuyen al caso más desfavorable del 50%.

***EUSKADIKO 2019. URTEKO BATZAR ETA KONBENTZIO JARDUERA***
***ACTIVIDAD DE CONGRESOS Y CONVENCIONES EN EUSKADI 2019***

| | GUZTIRA \| TOTAL | Vitoria-Gasteiz | Bilbo \| Bilbao | Donostia \| San Sebastián |
|---|---|---|---|---|
| Erreferentzia-esparrua Marco de Referencia | **117.232** | 12.315 | 75.513 | 29.404 |
| Inkestak Encuestas | **960** | 333 | 341 | 286 |
| **Laginaren errorea Error Muestral** | **±3,2%** | ±5,4% | ±5,4% | ±5,9% |

*IBILTUR batzar eta konbentzioak, 2019*
*IBILTUR congresos y convenciones 2019*

- Goratzailearen kalkulua.

  **Goratzailea** kalkulatzeko prozesuak bi fase ditu:

  - **1. fasea.** Laginketa-puntuak osatu zituzten batzar eta konbentzioetako parte-hartzaileen erreprodukzioa, puntu horietan lortutako inkestetan oinarrituta.

    Horretarako, batzar eta konbentzio bakoitzeko, aldagai biderkatzaile bat (*GOR1*) sortu da, formula honen arabera:

    **(GOR1)i=Ci/ci**

    Hartan, “Ci” da "i" batzarrera edo konbentziora joan diren parte-hartzaileen[5] kopurua, eta “ci” da ekitaldi horretan lortutako inkesta-kopurua.

  - **2. fasea.** Hiri bakoitzeko parte-hartzaileen erreprodukzioa, aurreko fasean lortutako datuetan oinarrituta.

    Fase horretan, beste aldagai biderkatzaile bat (*GOR2*) sortzen da, formula hau erabiliz

    **(GOR2)i=Si/si**

    Hartan, “Si” da “i” hiriko batzar eta konbentzioetara joan diren pertsonen kopurua (Gasteiz, Bilbo eta Donostiako C*onvention Bureau* bulegoen datuen arabera), eta “si” da 1. fasearen arabera goratutako inkesten datua (hiri bakoitzekoa).

  Bi goratzaile horiek biderkatuz, inkesten datuei aplikatzen zaien azken goratzailea lortzen da:

  **GOR=GOR1xGOR2**

- Cálculo del Elevador.

  El proceso de cálculo del **elevador** considera dos fases:

  - **Fase 1**.- Reproducción de las y los asistentes a los congresos y convenciones que constituyeron los puntos de muestreo, a partir de las encuestas conseguidas en esos puntos.

    Para ello, se genera para cada congreso/convención al que se ha asistido una variable “multiplicador” (*ELE1*) en base a la siguiente fórmula:

    **(ELE1)i=Ci/ci**

    donde “Ci” refleja el número de asistentes[6] al congreso/convención “i” y “ci” representa al número de encuestas conseguidas en ese evento.

  - **Fase 2**.- Reproducción de las y los asistentes, por ciudad de celebración, a partir de los datos inferidos en el proceso anterior.

    En esta fase se genera una nueva variable “multiplicador” (*ELE2*) aplicando la fórmula:

    **(ELE2)i=Si/si**

    donde “Si” recoge el número de delegados asistentes a congresos y convenciones de la ciudad “i” (según datos de los C*onvention Bureau de Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia/San Sebastián*) y “si” es el dato (por ciudad) de las encuestas elevadas según la fase 1.

  El elevador final que se aplica a los datos de las encuestas se calcula multiplicando estos dos:

  **ELEV=ELE1*ELE2**

[5] Datu hori ez zegoenean, 1 balioa eman zaio GOR1 aldagaiari.
[6] Cuando no se disponía de ese dato se ha optado por darle valor “1” a ELE1.